

EUSKARA

2017ko azaroa

GIPUZKOAKO NERABE EUSKALDUNAK: IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA ETA SORKUNTZA

TXOSTEN EXEKUTIBOA

Ainhoa Fernández de Arroyabe Olaortua _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

Iñaki Lazkano Arrillaga _ EHUko Kazetaritza II Saileko irakaslea.

Leyre Eguskiza Sesumaga _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko ikerlaria.

Iñigo Larrauri Garate _ EHUko Artearen Historia eta Musika Saileko irakaslea.

Santos Zunzunegui Díez _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

Imanol Zumalde Arregi _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

EGILE GUZTIAK IGM/MAC IKERKETA TALDEKO KIDE DIRA



mac

Ikus-entzunezko Garaikideen Mutazioak
Mutaciones del Audiovisual Contemporáneo



ETORKIZUNA ERAIKIZ
EL **FUTURO** DE GIPUZKOA



Aurkibidea

I. Ideia esanguratsuenak	2
1. AISIALDIA	2
2. IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA AISIALDIAN	3
3. IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA	4
3.1. Filmak	4
3.2. Telesailak	5
3.3. Telebista saiok	7
3.4. Kirolak	8
3.5. Gaurkotasuna	9
3.6. ETB1, Hamaika Telebista eta Tokikom	10
3.7. Musika	11
3.8. Bideoklipak	12
3.9. Bideojokoak	13
4. EDUKIAK KOMUNIKATZEA, PARTEKATZEA ETA IRUZKINTZEA	15
5. IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN SORKUNTZA	18
5.1. Teknologia-Ekipamendua	18
5.2. Nerabeek sortzen dituzten eduki motak eta horien hedapena sarean	18
5.3. Youtuberrak, bideo tutorialak eta komunitate birtualak	23
5.4. Bullying-a	25
6. HEZKUNTZA EZ OFIZIALA: EUSKARAZKO INFORMAZIO ITURRIEN KONTSUMOA ETA SORKUNTZA	26
7. EZTABAIDA TALDEAK	27
7.1. Debagoiena. DBH1eko ikasleak	27
7.2. Goierri. DBH2ko ikasleak	27
7.3. Donostialdea. DBH3ko ikasleak	28
7.4. Oarso - Behe Bidasoa. DBH4ko ikasleak	28
7.5. Azken gogoeta	28
II. Ondorio nagusiak	29
III. AMIA (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak)	33
IV. Jarduera egitasmo baterako iradokizunak	35

I. Ideia esanguratsuenak

1. AISIALDIA

1.1. AISIALDIA ESKOLA EGUNETAN

- Eskola egunetan denbora gehien etxetik kanpo lagunekin igarotzen dute nerabe gipuzkoarrek. Jarraian, txateatzea, txiokatzea eta adiskideekin WhatsApp bidez aritzea dute atsegin. Filmak eta telesailak ikusteko telebistaren inguruan ere biltzen dira; senideekin ala bakarrik edo lagunekin. Bideojokoekin apur bat gutxiago aritzen dira. Zinemara, aldiz, oso gutxi doaz. Sormenarena da, baina, astegunetako jardueretako zerrendan azken lekuan dagoena. Bideoak, argazkiak eta bestelakoak sortu eta partekatzeari eskaintzen diote-eta tarterik txikiena.
- Mutilek neskek baino denbora gehiago igarotzen dute bideoak ikusten eta bideojokoekin jolasean. Neskek, berriz, mutilek baino denbora gehiago ematen dute txateatzen, txiokatzen eta WhatsAppen.
- Nerabeak, adinean aurrera egin ahala, denbora gehiago dabilta WhatsAppen, eta gutxiago, etxekoekin jolasean.
- Euskaraz bizi direnek baino denbora gehiago eskaintzen diote Ikus-entzunezkoen sormenari euskaraz bizi ez direnek.

1.2. AISIALDIA ASTEBURU EDO JAIEGUNETAN

- Aisialdia igarotzeko ohiturak astegunekoak berberak dira. Nolanahi ere, kasu guztietan, jarduera bakoitzari eskainitako denbora areagotzen da. Hala, nerabeek lagunekin etxetik kanpo, batezbeste, ordubete gehiago ematen dute kasik. Dena dela, bestelako aldaketarik ere bada. Esate baterako, bideoak ikusten denbora gehiago pasatzen dute eta sarriago doaz zinemara. Hori dela eta, etxekoekin tarte txikiagoa -portzentualki- igarotzen dute jolasean.
- Generoari erreparatuz gero, mutilak eta neskek bereizten dituzten jarduerak bere horretan mantentzen dira. Aldea, jarduera bakoitzari eskainitako denboran -handiagoa beti- jazotzen da. Hortaz, mutilek neskek baino denbora gehiago xahutzen dute bideojokoekin. Neskek, aldiz, mutilek baino denbora gehiago ematen dute txateatzen, txiokatzen eta WhatsAppen.
- Bestalde, euskara eguneroko bizitzan ez darabiltenak bideojokoekin gehiago jolasten dira eta zertxobait sortzaileagoak ere badira.

2. IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA AISIALDIAN

- Nerabeek gehien ikusten dituzten ikus-entzunezko edukiak filmak dira. Segidan, telesailak, youtuberrak, kirolak, bideoklipak, sareko bideoak, *reality*-ak, lehiaketak, albisteak eta dokumentalak daude.
- Neskek pelikulak, telesailak, bideoklipak, *reality*-ak, bideo tutorialak, saio arrosak eta web telesailak ikusten dituzte gehiago. Mutilek, ordea, youtuberrak, kirolak, sareko bideoak, lehiaketak, dokumentalak eta pornoa gogokoago dituzte.
- *Smart*telebista eta telebista tradizionala dira ikus-entzunezko edukiak ikusteko nerabeek darabiltzaten gailuak. Edozelan ere, telefono mugikorra askoz gehiago erabiltzen dute pornoa eta bideoklipak ikusteko.
- Pelikulak eta telesailak ikusteko tenorean, adinean aurrera egin ahala, telebista tradizionala gutxiago erabiltzen da, eta ordenagailua, gehiago. Bideoklipen kasuan, aldiz, tableta gutxiago erabiltzen da, eta telefono mugikorra, gehiago.
- Nerabeek ikus-entzunezko edukiak gaztelaniaz ikusten dituzte gehien. Jarraian, euskaraz. Eta, neurri txikiago batean, ingelesez.
- Euskarazko edukiak batezbestekotik gora kontsumitzen dituzte Goierri, Debabarrena, Debagoiena, Urola Kosta eta Tolosaldean. Batezbestekotik behera daude nabarmen Donostialdean eta Oarso-Behe Bidasoan.
- Oro har, adinean gora egin ahala, nerabeek euskaraz ikusten duten eduki kopurua urritu egiten da.
- Euskara jakin baina eguneroko bizitzan erabiltzen ez dutenen artean baino nabarmen handiagoa da euskarazko ikus-entzunezko edukiaren kontsumoa euskaraz bizi direnen artean.
- Euskaraz ezer ikusten dutenak ugariagoak dira ikastetxe pribatuetan.

3. IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA

3.1. FILMAK

- Komedia generoko filmak dira nerabeek gustukoak dituztenak. Jarraian, abentura-pelikulak, akziozkoak, polizia-pelikulak, zientzia-fikziozkoak, beldurrezkoak eta erromantikoak kokatzen dira, hurrenez hurren.
- Film historikoek, dokumentalek nahiz pornoak ere eragin txikia dute nerabeen kontsumo ohituretan.
- Eskualde mailan, aldaketa esanguratsurik ez dago. Donostialdeko gazteek film gehiago ikusten dituztela da azpimarragarriena.
- Neskek mutilek baino film erromantiko askoz gehiago ikusten dituzte. Mutilak, ostera, gainontzeko generoetan gailentzen zaizkie. Bereziki, akziozko pelikulen, polizia-pelikulen eta zientzia-fikziozko filmen kontsumoan.
- Adinean aurrera egin ahala, pelikulak ikusteko ohitura indartzen da. DBH4ko ikasleak dira filmik gehien ikusten dituztenak.

3.1.1. Nerabeak eta zinema

- Nerabeak oso gutxi doaz zinemara. Zinemara doazenen artean, erdiak baino gehiago hilean behin doaz. Lau nerabetik bat ez da inoiz joaten.
- Oro har hartuta, gazteak hilean behin edo bitan doaz zinemara.
- Tolosaldeko nerabeak dira zinemara gehien doazenak. Debagoienekoak, berriz, gutxien doazenak.
- Neskak mutilak baino gehiago doaz zinemara.
- Ikastetxe pribatuetako ikasleak gehiago doaz zinemara.
- Adinean aurrera egin ahala, zinema aretoetara joateko maiztasuna gutxitzen da. DBH1eko nerabeak dira zinemara gehien doazenak.

3.1.2. Nerabeak eta euskarazko zinema

- Gazteen erdiek baino gehiagok ez dute 2016an euskarazko filmik ikusi, euskarazko zinema gustuko ez dutela diotelako.
- Euskarazko zinema ikusten dutenen artean, gehienak filmaren gaia interesgarria iruditu zaielako doaz.
- Donostialdeko eta Oarso - Behe Bidasoako gazteek euskal zinemarekiko interes urria erakusten dute. Tolosaldeko, Goierriko eta Urola Kostako nerabeek, berriz, jakin-mina eta begirunea islatzen dute.
- Euskarazko zinema gustuko ez duten mutilak neskak baino askoz gehiago dira.
- Ikastetxe publikoetako ikasleak pribatuetakoak baino areago doaz zinemara euskarazko filmak ikustera.
- Euskara egunerokotasunean erabiltzeaz gainera, teknologian ere darabilten nerabeak dira euskal zinemarekiko jarrera baikorrena dutenak.
- Euskaraz errodatutako pelikulak euskarara bizkoiztutakoak baino areago atsegin dituzte nerabeek.

3.1.3. Filmak, gailuak eta hizkuntza

- Zinema aretotik kanpo nerabeek eskura dituzten gailuetan ikusten dituzten filmen hizkuntza nagusia gaztelania da.
- Ordenagailua eta *smart* telebista dira gaztelaniazko filmak ikusteko gehien erabiltzen diren gailuak. Sakelako telefonoaren erabilera ere esanguratsua da.
- Ordenagailua eta telebista tradizionala dira euskarazko filmak ikusteko gehien erabiltzen diren gailuak. Oso gertu daude, baina, sakelako telefonoa eta *smart* telebista.
- Oarso - Behe Bidasoa eta Donostialdeko nerabeek ez dute euskarazko filmekiko interes handirik erakusten. Alta, euskal filmak edozein gailutan ikusteko zaletasuna agerikoa da Tolosaldean, Urola Kostan, Goierrin, Debagoienean eta Debabarrenean.

3.1.4. Filmak, hizkuntza eta azpigituluak

- Gazteen erdiek baino gehiagok azpigituluak erabiltzen dituzte beste hizkuntza batean eskaintzen diren pelikulak ikusteko.
- DBH4ko ikasleak dira beste hizkuntza batean ematen diren filmak ikusteko azpigituluak gehien darabiltzatenak. Aitzitik, DBH1ekoak dira azpigituluak gutxien erabiltzen dituztenak.
- Gaztelaniazkoak dira nerabeek beste hizkuntza batean ematen diren filmak ikusteko gehien erabiltzen dituzten azpigituluak. Ondoren, ingelesezkoak darabiltzate. Nerabeen artean gutxi batzuek soil-soilik erabiltzen dituzte euskarazko azpigituluak.
- Donostialdeko eta Oarso - Behe Bidasoako nerabeak dira euskarazko azpigituluak gutxien erabiltzen dituztenak. Kontrara, Tolosaldekoak eta Debabarrenekoak dira gehien baliatzen dituztenak.
- Euskaraz bizi diren gazteek zein teknologia berrietan ere euskara darabiltzenek gehiago baliatzen dituzte euskarazko azpigituluak.
- Pelikulak euskaraz azpigitulaturik ikusteko aukera izango balute ere, gazte gehienek gaztelaniazko azpigituluen aldeko hautua egingo luketela diote.
- Oarso - Behe Bidasoako bi nerabetik batek kasik nahiago du pelikulak gaztelaniazko azpigituluekin ikustea. Tolosaldeko eta Urola Kostako nerabeek dute euskarazko azpigituluen aldeko jarrerarik agerikoena.

3.2. TELESAILAK

- Telesailen kontsumo maila handia da oso nerabeen artean. Gazteen artean, zalantzarik gabe, *Hawai 5.0* telesaila da ikusiena.
- Telesail ikusienek ezaugarri komunak dituzte. Polizia generoko telesailak dira, estatubatuarrak, eta gaztelaniaz eskaintzen dira modu irekian.
- Telesailen kontsumoa antzekoa da mutil zein nesken artean. Bereztasunik bada, baina. Erromantizismo kutsuko telesailak dira nesken kutunenak. Mutilek, aldiz, akziozkoak eta beldurrezkoak dituzte maiteago.

3.2.1. Komediak

- Telesail espainiarrak eta *The Simpsons* dira komediarik ikusienak. Hain justu, *La que se avecina*, *Gym Tony* eta *The Simpsons* dira, hurrenez hurren, nerabeen artean harrerarik onena duten umorezko telesailak.

- Nabarmenezkoa da *Go!azen* euskarazko musikalak lortutako arrakasta. Telesailik ikusien zerrendan laugarren postuan da eta *The Big Bang Theory* eta *Modern Family* ospetsuek baino portzentaje hobeak ditu.
- Eskualde mailan ere nagusi dira telesail espainiarrak. *La que se avecina* komediarik ikusiena da eskualde guztietan, Goierrin izan ezik. Dena den, *Go!azen* telesailaren harrera arras ezberdina da eskualdearen arabera. Eskualderik euskaldunenetan arrakasta handia du. Donostialdean zein Oarso- Behe Bidasoan, ordea, harrera askoz ere apalagoa da.
- *Go!azen* telesailak nesken artean du arrakastarik handiena. Euskarazko musikala ikusten duten neskak mutilak halako bi baitira.
- Euskararen erabilera mailak lotura estua du *Go!azen* telesailaren kontsumoarekin. Ikastetxetik kanpo euskaraz mintzatzen ez direnek baino askoz gehiago ikusten dute aipatu musikala euskara eguneroko bizitzan darabiltenek.
- Itunpeko ikastetxe eta ikastetxe publikoetako ikasleen artean ikastetxe pribatuetakoen artean baino arrakasta handiagoa du *Go!azen* telesailak.

3.2.2. Telesailak, ordainpeko plataformak eta Internet

- Nerabeen parte esanguratsu batek telesailak eta filmak ikusteko ez du ordainpeko plataformarik erabiltzen. Portzentajerik altuenak Tolosaldean eta Urola Kostan ematen dira. Eta, baxuenak, berriz, Debarrenean.
- Telesailak eta filmak ikusteko ordainpeko plataformak erabiltzen dituztenen artean, Euskaltel eta Movistar dira aukerarik ohikoenak. Netflix-ek, urrunago izan arren, portzentaje esanguratsua du.
- Euskaltel lehen aukera da eskualde guztietan, Donostialdean izan ezik. Bertan, Movistar da jaun eta jabe.
- Nerabe gehienek, bi herenek, telesailak eta filmak Internet bidez doan ikusten dituzte. Gutxiengo batek bakarrik aitortzen du telesail eta filmak ikusteagatik ordaintzen duela. Hortaz, doakotasunaren kultura oso zabalduta dago nerabeen artean.
- Neskak dira telesail eta filmak *on line* eta doan gehien ikusten eta deskargatzen dituztenak. Eta, mutilekiko aldea, esanguratsua da.
- Adinean aurrera egin ahala, gero eta nerabe gehiagok ikusten dituzte *on line* eta doan telesail eta filmak.

3.2.3. Telesailak: web telesailak, hizkuntza eta azpтитuluak

- Web telesailen kontsumoa txikia da nerabeen artean, gehiengoak ez ditu-eta ikus-entzunezko eduki horiek ikusten.
- Nerabeen ia erdiek ez dute azpтитulurik erabiltzen beste hizkuntza batzuetan eskaintzen diren telesailak kontsumitzen dituztenean.
- Azpтитuluak erabiltzen dituzten gazteen artean, gaztelania da nagusi. Jarraian, ingelesea erabiltzen dute gehien. Euskara azken postuan da.
- Eskualde mailan, Tolosaldean erabiltzen dira gehien euskarazko azpтитuluak. Oarso - Behe Bidasoan, aldiz, gutxien.
- Nerabeek, zenbat eta helduago izan, orduan eta azpтитuluekiko jarrera aldekoagoa erakusten dute.
- Euskaraz bizitzeaz gain, euskara ikasketatan zein teknologia berrietan ere darabilten nerabeek gehiago jotzen dute euskarazko azpтитuluetara.

3.3. TELEBISTA SAIOAK

3.3.1. Telebista saioen harrera

- *El hormiguero*, *Pasapalabra* eta *Callejeros viajeros* dira nerabeen artean harrerarik onena erdiesten duten telebista saioak. Euskal Telebistaren programazioa oinarri harturik, kontsumorik handiena dutenak umore saioak dira (*Kamera ezkutua*, *Herri txiki*, *infernua handi...*). Kulturari lotutako saioek (*Zinez*, *EITB Kultura Transit*, *Sautrela...*), ostera, oso jarraipen urria dute.
- Eskualde mailan, bi joera arras ezberdin nabarmentzen dira. Alde batetik, Tolosaldeko eta Urola Kostako nerabeek euskarazko saioak beste eskualdetakoek baino gehiago ikusten dituzte. Eta, bestetik, Donostialdean eta Oarso-Behe Bidasoan ETB1eko edukien kontsumoa dezente txikiagoa da.
- ETB1eko euskarazko saioek jarraipen handiagoa dute ikastetxe publikoetako ikasleen artean.
- Adinak ere eragina du nerabeen gustuko saioen aukeraketan. Hala, gaztetxoenen artean (12-13 urte) *Kamera ezkutua* da saiorik kutunena. Helduenen artean (15-16 urte), aldiz, *Callejeros Viajeros* eta *Salvados* dira saiorik gogokoena.
- Generoa ere kontuan hartu beharreko aldagaia da. Mutilek neskek baino gehiago ikusten dituzte kirol saioak, kasu.
- Euskararen erabilera ere lotura zuzena du euskarazko saioen jarraitzearekin. Horrenbestez, eguneroko bizitzan euskaraz gehiago mintzo direnek euskarazko telebista saio gehiago ere kontsumitzen dituzte, eta alderantziz.

3.3.2. Reality show-ak eta txutxu-mutxu saioak

- *Reality*-ak eta txutxu-mutxu saioen kontsumoa ardatz hartuta, Cuatro eta Telecinco (Mediaset) dira nerabeen telebista katerik gogokoena. Izan ere, aipatu kateetan eskaintzen dira gazteek gehien jarraitzen dituzten saioak: *First Dates*, *Cámbiame*, *Mujeres y hombres y viceversa* eta *Gran Hermano*. Adin tarte horretan ere ETBko *El conquistador del fin del mundo* eta *Gu ta gutarrak* saioek emaitza onak erdiesten dituzte.
- Bi joera argi bereizten dira eskualde mailan. Tolosaldean, Goierriin, Debabarrenean, Debagoienean eta Urola Kostan ETBko saioen kontsumoa handia da. Donostialdean eta Oarso - Behe Bidasoan, berriz, kontrakoa gertatzen da eta, hein handi batean, Atresmedia eta Mediaset-eko ikus-entzunezko edukien aldeko hautua egiten da. Debabarrenaren kasua berezia da oso. *Reality* eta txutxu-mutxu saioen kontsumoa oso altua baita (ETBko saioena nahiz Mediaset-ekoena ere).
- Adina aldagai esanguratsua da. Hala, gazteenen artean *Gu ta gutarrak* da nagusi. Eta, helduenek, euren aldetik, *Mujeres y hombres y viceversa* eta *Gran Hermano* dituzte gustukoena.
- Neskak dira, ez bairik gabe, *reality*-ak eta txutxu-mutxu saioak gehien ikusten dituztenak. Gauzak horrela, *El conquistador del fin del mundo* da neskek eta mutilek antzeko neurrian kontsumitzen duten saio bakarra.
- Eguneroko bizitzan euskara darabiltenek gehiago jarraitzen dituzte ETBko *El conquistador del fin del mundo*, *Gu ta gutarrak* eta *Tú al norte y yo al sur* saioak. Euskara ikastetxetik kanpo erabiltzen ez dutenek, ordea, gutxiago kontsumitzen dituzte eduki hauek eta Mediaset-eko eskaintzaren jarraipen handiagoa egiten dute.

3.4. KIROLAK

- Futbola da, alde handiz, nerabeek gailu ezberdinen bitartez gehien jarraitzen duten kirola. Segidan, saskibaloia eta motor kirolak (Bat Formula eta motoziklismoa, hain justu) kokatzen dira. Eta, pilota, gazteen kirolik gustukoenen bosgarren postuan da.
- Eskualde mailan ere futbolaren nagusitasuna ukaezina da. Pilotaren kasuan, ordea, ezberdintasunik bada. Hala, jarraipena handia da Tolosaldean, Goierriin, Urola Kostan, Debagoienean eta Debabarrenean. Donostialdean eta Oarso - Behe Bidasoan, berriz, askoz txikiagoa da. Antzeko zerbait jazotzen da ere txirrindularitzarekin, traineru estropadekin, herri kirolekin edo mendiarekin.
- Mutilek neskek baino areago kontsumitzen dituzte kirolarekin zerikusia duten Ikus-entzunezkoak.

3.4.1. Ikus-entzunezko kirolak eta hizkuntza

- Kirolak ikusteko nerabeek gehien darabilten hizkuntza gaztelania da. Portzentajea euskararena halako bi da. Ingelesarena, apalagoa da.
- Gaztelania ere nagusi da eskualde mailan. Euskarazko kirol emanaldiak, aldiz, Donostialdean eta Oarso - Behe Bidasoan baino askoz gehiago ikusten dira Tolosaldean zein Urola Kostan. Goierri, Debagoiena eta Debabarrenaren portzentajeak batezbestekotik hurbil daude.
- Donostialdean kontsumitzen da ingelesezko kirol emanaldi gehien. Tolosaldean halako bi, hain zuzen ere.
- Generoaren ikuspegitik ez dago ezberdintasun nabarmenik euskarazko kontsumoaren aldetik. Neskek, ostera, mutilek baino pixka bat gehiago jarraitzen dituzte euskarazko kirol emanaldiak. Ingeleseko kirol emanaldien kasuan, mutilak gailentzen zaizkie nahikoa argi.
- Adinean aurrera egin ahala, ingelesezko kirol emanaldien kontsumoa areagotu egiten da.

3.4.2. Kirolak eta irratia

- Futbola da irratia bidez gehien kontsumitzen den kirola. Jarraian, oso urrun, pilota, saskibaloia eta txirrindularitza kokatzen dira.
- Bi nerabetik batek ez du irratiko kirol emanaldirik entzuten.
- Mutilen kontsumo ohitura askoz handiagoa da kirol mota orotan. Bereziki, futbolaren kasuan.
- Adinean gora egin ahala, kirola irratian entzuteko joerak behera egiten du kirol guztietan, pilotaren kasuan izan ezik.
- Kirolak irratian entzuteko nerabeek gehien aukeratzen duten hizkuntza gaztelania da. Ondoren, nahikoa urrun, euskara kokatzen da. Oso kopuru txiki batek egiten du ingelesaren aldeko hautua.
- Gaztelania eta euskararen arteko aldeak eskualdeka aztertuz gero, ñabardurarik bada. Goierriin eta Oarso - Behe Bidasoan gaztelania nagusi da oso. Eta, nagusitasun hori, areagotzen da Donostialdean. Tolosaldean eta Urola Kostan, baina, nolabaiteko oreka bat ematen da. Aipatu eskualdeetako nerabeek ia portzentaje berean jarraitzen baitituzte kirol emanaldiak euskaraz zein gaztelaniaz.

3.4.3. Kirolak eta egunkarietako webguneak

- Nerabe gehienek ez dituzte kirol emanaldiak egunkarietako webguneetan jarraitzen. Lautik bakar batek soilik onartzen du aipatu kontsumo ohitura duela.

- Mutilak dira, nagusiki, egunkarietako webguneen bitartez kirol emanaldiak jarraitzen dituztenak.
- Adinean aurrera egin ahala, areagotu egiten da kirol emanaldien berri izateko egunkarietako webguneak erabiltzeko joera.
- *Marca* kazetaren bertsio digitala da, alde handiz, kirol emanaldiak Internet bitartez jarraitzeko nerabeen hautu nagusia. Jarraian, *El Diario Vasco*, *Mundo Deportivo*, *As*, *Berria*, *Sport* eta *Gara* kokatzen dira.
- Mutilek neskek baino askoz gehiago jarraitzen dituzte zuzenean kirol ezberdinetako partidak *Marca* egunkarian. Neskek dira, baina, *El Diario Vasco* eta *Berria* kazetetako webguneak gehien jarraitzen dituztenak.

3.5. GAURKOTASUNA

- Munduko albisteak, nazioarte mailako berriak, dira nerabe gehienek arreta lortzen dutenak. Ondoren, kirol albisteak, Euskal Herriko albisteak, eguraldia eta Espainiako albisteak kokatzen dira, hurrenez hurren. Deigarria da tokiko albisteek gazteen artean duten erakarmen eskasa. Halaber, kultur albisteen harrera ere txikia da. Oso apala.
- Bost nerabetik batek gaurkotasunaren aurrean interesik eza agertzen du.
- Munduko berriak dira ere eskualde guztietan jakin-minik handiena eragiten dutenak. Euskal Herriko albisteen harrera mailan ematen dira ezberdintasunik aipagarrienak. Donostialdean eta Oarso - Behe Bidasoan gainontzeko eskualdeetan baino harrera apalagoa baitute.
- Euskara eguneroko bizitzan, ikasketatan eta teknologiaren esparruan darabiltenek erabiltzen ez dutenak baino gehiago kontsumitzen dituzte mota guztietako albisteak. Bereziki, Euskal Herrikoak eta tokian tokikoak.
- Neskek mutilek baino gehiago kontsumitzen dituzte albisteak. Kirol albisteetan salbu, euren nagusitasuna erabatekoa da esparru guztietan.
- Adinean gora egin ahala, gaurkotasunarekiko interesa areagotzen da. Informazio eremu kasik guztietan -kirol albisteetan izan ezik, portzentajeak paretsuak baitira- interes askoz handiagoa nabari da DBH4ko ikasleen artean DBH1eko artean baino.
- Nerabeak gero eta maila ekonomiko altuagoa izan, orduan eta interes gehiago du informazioan.
- Unibertitate ikasketadun gurasoak dituzten nerabeek informazio gehiago kontsumitzen dute.

3.5.1. Informatzeko erabilitako gailu eta hizkuntzak

- Telebista da nerabeek informatzeko erabiltzen duten gailu nagusia. Dena dela, sakelako telefonoak gero eta garrantzi handiagoa du. Ordenagailua ere nahikoa erabilia da. Irratiak, ostera, aurreko belaunaldietako izaera erreferentziala galdu du. Tabletaren pare dago, oso urrun.
- Nerabeek, neurri handi batean, gaztelaniaz jarraitzen dituzte albisteak. Euskaraz jarraitzen dituztenen halako bi da portzentajea. Gutxi batzuek, berriz, ingelesez jarraitzen dituzte.
- Gaurkotasunaren berri izateko nerabeek gaztelania darabilte nagusiki eskualde guztietan. Euskararen kasuan, Tolosaldean zein Urola Kostan ematen dira emaitzik onenak. Donostialdean eta Oarso - Behe Bidasoan, ostera, dezente txikiagoa da euskararen erabilera.
- Ingelesez albisteak jasotzeko ohiturak Donostialdean du jarraitzailerik gehien. Bertan, hamar ikasletik batek egiten du ingelesaren hautua.

- Eguneroko bizitzan, ikasketatan eta teknologian euskara darabilten nerabeak dira informatzeko euskara gehien erabiltzen dutenak.
- Gero eta maila ekonomiko altuagoa izan, orduan eta joera handiagoa du nerabeak gaurkotasuna euskaraz zein ingelesez jarraitzeko.

3.5.2. Interneteko agregatzaileen erabilera

- Ikasleen erdiek kasik ez dute informatuta egoteko Interneteko agregatzaileak erabiltzen.
- Interneteko agregatzailearen bat erabiltzen duten nerabeen artean, Google da arrakastarik handiena duena. Hamar gaztetik bederatzik ia darabilte aipatu agregatzailea gaurkotasunaren berri jasotzeko.
- Eskualde guztietan, Debabarrenean salbu, Interneteko agregatzaileak erabiltzen ez dituzten ikasleak dira nagusi.

3.6. ETB1, HAMAICA TELEBISTA ETA TOKIKOM

3.6.1. ETB1

- *Go!azen* telesaila da, duda zipitzik gabe, ETB1eko saiorik ikusiena. Hamar nerabetik lauk ikusten dute. Jarraian, *Gu ta gutarrak*, *Kamera ezkutua* eta *Herri txiki, infernu handi* kokatzen dira.
- Nerabeen artean ETB1 ikusten ez dutenen kopurua esanguratsua da. Alegia, hiru gazte euskaldunetik batek ez du ikusten.
- Alde esanguratsuak daude ETB1ekiko harrerari dagokionez eskualde mailan. Nabarmenenak, Tolosaldea eta Oarso - Behe Bidasoaren artekoak dira. Zerrendatutako ETB1eko 18 saioetatik 14tan du ikusle kopururik onena Tolosaldeak. Oarso - Behe Bidasoan, berriz, zerrendatutako 18 saioetatik 15ean du Oarso - Behe Bidasoak ikusle kopururik apalena. Horrezaz gain, nerabeen erdiek baino gehiagok ez dute ETB1 ikusten. Arrakala handia dago eskualdeen artean, zinez. Alde batetik, Oarso - Behe Bidaso eta Donostialdea daude. Oso emaitza kaskarrekin. Eta, bestetik, gainontzeko eskualde guztiak. ETB1eko saioei harrera hobea ematen dietenak, alegia.
- Neskek mutilek baino dezente gehiago ikusten dute ETB1. *Go!azen* telesaila ere mutilek halako bi ikusten dute. Mutilen artean, ordea, kirol saioak dira ikusienak.
- Badira neska eta mutilen artean antzeko harrera jasotzen duten saioak: *Herri txiki, infernu handi, Burubero, Pintxo & Pote, DBH...*
- Euskararen erabilera mailak eragin zuzena du ETB1 telebista katearen jarraipenean. Izan ere, euren eguneroko bizitzan euskara erabiltzen ez duten hiru gaztetik bik ez dute ETB1 ikusten.
- Ikastetxe publikoetako ikasleek ikastetxe pribatukoek baino gehiago ikusten dute ETB1.

3.6.2. Hamaika Telebista

- Nerabe oso gutxi ikusten dute Hamaika Telebista.
- *Bizi musika* da Hamaika Telebistako saiorik ikusiena, euskal musika taldeen bideoklipak eskaintzen duen programa bat da.
- Hamaika Telebistak ikasleen artean duen harrera eskualdeka aztertuz gero, Tolosaldea da daturik txukunenak eskaintzen dituenak. Daturik kaskarrenak, aldiz, Oarso - Behe Bidasoan ematen dira.

3.6.3. Tokiko telebistak: Goiena Telebista

- Debagoienean, hiru ikasle bik ez dute Goiena Telebista ikusten.
- *Kantari* da ikusle gazteen saiorik kutunena. Jarraian, *Jaiak*, *Amaia DJ*, *Debagoiena Zuzenean* tokiko albistegia, *Galdegazte* eta *Harmailatik* kokatzen dira, hurrenez hurren.
- Emaizak kontuan hartuta, saiorik ikusienek bat egiten dute ikasle gaztearen soslaiarekin. Bertan, musika, jaiak eta kirolak baitira nagusi.

3.6.4. Tokiko telebistak: Goierri Telebista, 28 Kanala eta Erlo TB

- Nerabeen gehiengo handi batek bizkar ematen die euskarazko tokiko telebistei.
- Aztertutako tokiko telebisten programazio komuna kontuan harturik, *28 Klip* musika saioa da nerabeen artean arrakastarik handiena duena. Jarraian, *alde handira*, *Ikusi irratia* kokatzen da.
- Ikusle kopuruak urriak izanik ere, tokiko albistegiek eskualde guztietako gazteen artean duten harrera ona azpimarratzeko modukoa da.

3.6.5. Ikus-entzunezko edukiak partekatzeko edo iruzkintzeko modua

- Telebistako edukiak partekatzeko eta haiei buruz hitz egiteko joera du nerabeen gehiengoak.
- Gazte gehienek telebistako edukiak partekatu eta haien inguruan solasean aritzeko WhatsApp aplikazioa darabilte.
- Oso gazte gutxi darabiltzate Facebook eta Twitter ikus-entzunezko edukiak partekatu edo haiei buruz hitz egiteko.

3.6.6. Gaztezulo aldizkaria

- Gazte gehienei ez zaizkie *Gaztezulo* aldizkariaren edukiak interesgarriak iruditzen.
- *Gaztezulo* aldizkariaren webgunean sartu eta irakurtzeko ohitura duten nerabeak dira nagusi eskualde ia guztietan. Portzentajerik altuena, ostera, Goierri ematen da.

3.7. MUSIKA

- Pop musika da nerabeek gehien entzuten duten musika mota. Jarraian, baina alde handira, rap, musika latinoak, rocka eta dance musika leudeke.
- Aurreko belaunaldietan gazteen artean oso harrera ona zuten musika mota batzuk -punka eta heavya, kasu- ez dute hain arrakasta handia egungo nerabeen artean. Antzeko zerbaitez gertatzen da ere musika klasikoarekin, jazzarekin eta folkarekin.
- Pop musika da jarraipenik handiena duen musika mota eskualde guztietan. Deigarria da Oarso - Behe Bidasoan rapak, musika latinoak eta dance musikak duten indarra.
- Neskek popa, musika latinoak eta dance musika entzuten dituzte gehiago. Mutilek, aldiz, rapa, rocka, heavya eta punka.

3.7.1. Musika eta hizkuntza

- Folkak da nerabeek euskaraz gehien entzuten duten musika mota. Segidan, rocka eta punka leudeke.
- Rock, pop, jazz, heavy eta dance musika moten kontsumoa ingelesez egiten da neurri handi batean.

- Rap musikaren ingelesezko eskaintza zabala izanik ere, gehienbat gaztelaniaz entzuten dutela diote nerabeek.
- Euskarazko musikaren kontsumo ohiturak oinarri harturik, nabarmentzekoa da folka Tolosaldean eta Debagoiengan oso jarraitua dela. Rockak ere emaitza onak erdiesten ditu bertan eta Urola Kostan.

3.7.2. Musika: gailuak eta plataformak

- Sakelako telefonoa da nerabeek musika entzuteko gehien erabiltzen duten gailua. Ondoren, baina oso urrun, ordenagailua kokatzen da. Tableta eta irratia oso gutxi darabiltzate.
- Musika entzuteko gazteek erabiltzen dituzten plataformen artean ia erabatekoa da Youtuberen nagusitasuna. Bigarren tokian, Spotify legoke. Jarraian, baina nahikoa urrun, *40 Principales* eta *Gaztea* dauzkagu.
- Euskararen erabileraren ikuspuntutik, *Gaztea* irratia kontsumo maila esanguratsua da Urola Kosta, Debagoiena eta Tolosaldean. Oarso - Behe Bidasoan zein Donostialdean, baina, emaitzak askoz apalagoak dira.

3.8. BIDEOKLIPAK

- Pop musika estilokoak dira gazteek gehien kontsumitzen dituzten bideoklipak. Tarte handia dago hauen eta jarraian datozenen artean. Azken horien artean, musika latinokoak eta rap musikakoak dira nagusi. Ondoren, rock eta dance musikako bideoklipak kokatuko lirakeke.
- Musika latinoa, popa eta dance gisako estiloek arrakasta handiagoa dute nesken artean. Mutilek, berriz, heavy eta punka dituzte gogokoago.
- Euskaraz bizi direnek bideoklipak ikusteko joera txikiagoa dute.

3.8.1. Bideoklipak eta hizkuntza

- Nerabeek rock, pop, jazz, heavy eta dance musika estiloetako bideoklipak ingelesez kontsumitzen dituzte gehienbat. Rap eta musika latinokoak, aldiz, gaztelaniaz.
- Folk estiloko bideoklipak dira nerabeek euskaraz gehien kontsumitzen dituztenak. Jarraian, rock, punk eta pop musikako bideoklipak dituzte gogokoak.
- Eskualdeak aintzat hartuta, folk, rap eta dance estiloetako euskarazko bideoklipak Tolosaldean kontsumitzen dira gehien; rock, pop, punk, heavy eta musika klasikokoak, Urola Kostan; eta, jazzekoak, berriz, Debabarrenean.
- Euskara euren egunerokotasunean nahiz teknologian ere darabiltzen euskarazko bideoklip gehiago kontsumitzen dituzte.
- Neskek euskarazko pop estiloko bideoklip gehiago kontsumitzen dituzte.

3.8.2. Bideoklipak: gailuak eta plataformak

- Sakelako telefonoa da nerabeek bideoklipak kontsumitzeko gehien erabiltzen duten gailua, duda zipitzik gabe. Ondoren, hurrenez hurren, ordenagailua, tableta eta telebista darabiltzate.
- Youtube da, alde ikaragarri handiz, bideoklipak kontsumitzeko nerabeek gehien erabiltzen duten plataforma. Eskualde orotan da nagusi, gainera.

3.8.3. Bideoklipak eta azpitoluak

- Nerabeen gehiengoak ez ditu azpitoluak erabiltzen bideoklipak kontsumitzeko tenorean.
- Oso nerabe gutxi darabiltza euskarazko azpitoluak bideoklipak kontsumitzerakoan. Zentzu horretan, Tolosaldean eta Urola Kostan ematen dira emaitzarik onenak.
- Bideoklipak kontsumitzerakoan euskarazko azpitoluak erabiltzeko joera handiagoa da euskaraz bizi direnen artean.

3.9. BIDEOJOKOAK

- Tiroetakoak eta kiroletakoak dira gazteek gehien erosten dituzten bideojokoak.
- Kontsolarekin zuzenki lotua dago bideojokoen erosketak. Kontsola duten nerabeak dira bideojoko gehien erosten dituztenak.
- Mutilak dira, zalantzarik gabe, bideojoko gehien erosten dituztenak. Tiroetakoak, kiroletakoak, akzio-estrategiazkoak, abenturazkoak eta simulaziozkoak dira haien bideojokorik kutunenak. Neskek, ordea, plataforma gisakoak atsegin dituzte gehiago.
- Adinean aurrera egin ahala, nerabeek bideojoko gutxiago erosten dituzte eta *on line* jolasteko ohitura indartzen da.
- Euskaraz bizi direnek eta teknologia euskaraz baliatzen dutenek bideojokoak erosteko joera gutxiago dute. Euskaraz bizi ez direnek, aldiz, bideojoko gehiago erosten dituzte. Tiroetakoak, akzio-estrategiazkoak eta simulaziozkoak, nagusiki.
- Familien estatusa eta gurasoen heziketa maila zenbat eta altuagoa izan, orduan eta bideojoko gutxiago erosten dituzte nerabeek.

3.9.1. Internet bidez jolasean aritzeko bideojokoak

- *Minecraft*, *The Sims* eta *League of Legends* dira *on line* jolasean aritzeko nerabeen bideojokorik gustukoena.
- *The Sims*, simulazio sozialean oinarritutako jokoak, da nesken artean arrakasta gehien duen bideojokoa. Mutilen artean, osterak, *Minecraft* akzio-estrategiazko bideojokoak du ohorezko leku hori.
- Nerabeek, nagusitu ahala, *Minecraft* eta *The Sims* bideojokoekin jolasteko grina galtzen dute.
- Euskaraz bizi ez diren nerabeek rol jokoetan oinarritzen diren bideojokoak –*League of Legends* eta *World of Warcraft*–, *Minecraft* akzio-estrategiazko jokoak, eta *Dota* eta *The Sims* bezalako simulazio sozialeko bideojokoak gogoko dituzte. Euskaraz bizi direnek maila apalagoan baliatzen dituzte bideojoko horiek.
- Guraso gazteak dituzten nerabeek eta ikasketak maila zein estatus ekonomiko baxuagoa duten familietako gazteek bideojokoekin *on line* jolasteko ohitura handiagoa dute.
- *Minecraft*, *The Sims* eta *League of Legends* dira *on line* jolasean aritzeko nerabeen bideojokorik gustukoena.

3.9.2. Beste bideojokoak

- Interneten jolasten diren nerabeen artean, hirutik batek beste bideojoko batzuk ditu gogokoago: *Fifa*, *GTA*, *Call of Duty* eta *Clash Royale*.
- *GTA* eta *Call of Duty* helduei zuzendutako bideojoko oso bortitzak izateaz gain, emakumea gutxiesten duten edukiak dituzte.
- *GTA* eta *Call of Duty* bideojokoekin jolasean dihardutenak mutilak dira nagusiki.

3.9.3. Bakarrik ala taldeka?

- Gazteen erdiak baino gehiago taldeka jolasten dira. Beraz, gutxiengo dira bideojokoekin *on line* bakarrik aritzen direnak.
- Mutilen artean askoz gehiago dira taldeka *on line* jolasten direnak.

3.9.4. Bideojokoak: sakelako telefonoa

- Sakelako telefonoaren bitartez jolasten diren bideojokoaren artean, *Clash Royale* da nerabeen kutunena.
- Mutilak dira *Clash Royale* bideojokoarekin sakelako telefonoaren bidez gehien jolasten direnak.
- Heldu ahala, *Clash Royale* bideojokoarekiko interesa jaisten da.

3.9.5. Bideojokoak: gailuak

- Kotsola eta sakelako telefonoa dira bideojokoekin jolasean aritzeko nerabeek nagusiki darabiltzaten gailuak. Jarraian, ordenagailua, tableta eta jolasteko makina ageri dira.
- Mutilak neskak baino askoz gehiago jolasten dira kotsolarekin eta sakelako telefonoarekin. Neskek, ordea, mutilek baino areago darabiltzate jolasteko makinak.

4. EDUKIAK KOMUNIKATZEA, PARTEKATZEA ETA IRUZKINTZEA

4.1. IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIAK KONTSUMITZEKO LEKUA

- Nerabeek etxean ikusten dituzte gehienbat Ikus-entzunezko edukiak.
- Adina kontuan hartuta, helduenek nahiago dute Ikus-entzunezko edukiak etxean bakarrik eta lonjan lagunartean jarraitzea. Gazteenek, ordea, Ikus-entzunezko edukiak etxean eta familia artean kontsumitzeko joera handiagoa dute.

4.2. EDUKIAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

- Euren gustu pertsonala da nerabeek kontsumitzen dituzten pelikulak, telesailak, telebista saiokak eta bestelako ikus-entzunezko edukiak aukeratzeko kontuan hartzen duten irizpide nagusia. Halaber, lagun eta ezagunen gomendioek ere berebiziko garrantzia dute. Youtuben edo telebista kateen webguneetan eskainitakoek zein sare sozialetan zein WhatsApp taldeetan irakurritakoek ez dute hain eragin handirik. Inork gutxik erabiltzen ditu ohiko hedabideak informazio iturri gisa.
- Gazteenak (DBH1) eta neskek dira adiskide eta ezagunen iritzia gehien kontuan hartzen dutenak.

4.3. HIZPIDE HARTUTAKO GAIK

- Filmak dira lagunartean daudenean nerabeek izaten duten hizketagairik ohikoena. Telesailak eta musika ere hizpide izaten dituzte sarri-askotan. *Reality*, kirol eta bideojokoei buruz neurri txikiago batean aritzen dira.
- Zenbat eta helduagoak izan, orduan eta gehiago hitz egiten dute nerabeek *reality*-ei buruz eta gutxiago bideojokoen inguruan.
- Neskek gehiago dituzte hizpide pelikulak, telesailak, *reality*-ak eta musika. Mutilek, beren aldetik, bideojoko eta kirolen inguruan hitz egiteko joera handiagoa dute.

4.4. EDUKIEI BURUZ ARITZEKO ERABILITAKO PLATAFORMAK

- WhatsApp behin-behineko mezu zerbitzua da nerabeek ikusten dituzten edukiak lagunartean iruzkintzeko darabilten plataformarik gustukoena. Hizketaldi horiek, adiskide bakar batekin ez ezik, WhatsAppeko talde tematikoetan ere ematen dira. Aurrez aurreko iritzien elkartrukearen alde ere nabarmen egiten dute nerabeek.
- Instagram da nerabeek ikus-entzunezko edukiei buruz solasean aritzeko gehien darabilten sare soziala. Twitter eta Facebook, berriz, askoz gutxiago erabiltzen dituzte eginkizun horretarako.
- Gazteenak (DBH1) dira ikus-entzunezko edukiak aurrez aurre gutxien komentatzen dituztenak. Helduenak (DBH4) dira, ostera, aipatu edukiei buruz aurrez aurre gehien aritzen direnak.
- Mutilek sare sozialen erabilera handiagoa egiten dute ikus-entzunezko edukiak komentatzerakoan. Neskek, aldiz, eduki horiek aurrez aurre iruzkintzeko joera handiagoa dute.
- Gaztelaniara jotzen duten gazteek ikus-entzunezko edukiak komentatzeko gehiago erabiltzen dituzte sare sozialak -Instagram, bereziki-. Euskara familian eta lagunartean darabiltenek, baina, nahiago dute iritzia aurrez aurre elkartrukatzeko.

4.5. EDUKIAK IRUZKINTZEKO ERABILITAKO HIZKUNTZA

- Gaztelania da nerabeek ikus-entzunezko edukiak komentatzeko edo haien inguruan iradokizunak egiteko erabiltzen duten hizkuntza nagusia. Nolanahi ere, bi eredu elebidunak –gaztelania nagusi duena eta euskara nagusi duena– elkartuz gero, eredu elebiduna gailenduko litzaioke. Euskara hutsaren aukera, ordea, nerabeen gutxiengo batek darabil.
- Eskualde mailan, bi joera nagusi antzeman daitezke. Alde batetik, Tolosaldea, Debagoiena eta Urola Kostako nerabeek ikus-entzunezko edukiak euskara hutsez edo euskara lehenesten duen eredu elebidunean iruzkintzeko joera nabarmena dute. Eta, bestetik, Donostialdeko eta Oarso - Bidasoako gazteek gaztelaniaren aldeko hautua egiten dute ikus-entzunezko edukiak hizpide dituztenean.
- Ikus-entzunezko edukiei buruz eredu elebidunetan eta euskara hutsean ere aritzen dira eguneroko jardunean euskaraz mintzo diren nerabeak. Normalean euskaraz aritzen ez direnek, bestalde, aipatu auziaren inguruko iritzi eta iradokizunak gaztelaniaz eskaintzen dituzte.

4.6. LAGUNARTEAN HIZPIDE DIREN PELIKULAK

- Aniztasun handia sumatzen da nerabeek lagunartean gehien komentatzen dituzten pelikulei erreparatuta. Ez alferrik, dramak, komediak, film erromantikoak, fantasiakoak eta akziozko pelikulak ere aipatzen dituzte-eta gustukoenen artean.
- Nerabeen artean oihartzunik handiena izan duten pelikulak hauek dira: *Un monstruo viene a verme*, *Tres metros sobre el cielo*, *Ocho apellidos vascos* eta *Star Wars*.
- Euskarazko pelikulak ez dira ohiko hizketagai nerabeen artean.
- Dramak eta pelikula erromantikoak dira, batik bat, nesken artean hizpide. Mutilek, ostera, gogokoago dituzte akziozko eta fantasiako filmak.

4.7. LAGUNARTEAN HIZPIDE DIREN TELESAILAK

- *La que se avecina* eta *Go!azen* dira nerabeek lagun kuadrillarekin daudenean ohiko mintzagai izaten dituzten telesailak.
- Euskarazko telesailak –*Go!azen* izan ezik– ez dira ohiko hizketagai nerabeen artean.
- Eskualde mailan aurkitutako ezberdintasunik esanguratsuenak *Go!azen* euskarazko telesailarekin du zerikusia. Urola Kostan, Debabarrenean eta Tolosaldean nerabeen artean hizpide da usu. Donostialdean eta Oarso - Behe Bidasoan, kontrara, oso gutxi hitz egiten da aipatu telesailari buruz.
- Neskek eta mutilek telesailak jarraitu eta komentatzeko tenorean gustu ezberdinak dituzte. Lehenek, drama, erromantizismoa eta misterioa gogoko dituzte. Eta, bigarrenek, akzioa eta komedia.
- Ikastetxe publikoetako ikasleek eta euskaraz bizi diren nerabeek gehiago komentatzen dute *Go!azen* euskarazko telesaila.

4.8. LAGUNARTEAN HIZPIDE DIREN TELEBISTA SAIOAK

- Telecinco da nagusi nerabeen iruzkin gehien jasotzen dituzten saioen zerrendari erreparatuz gero. Izan ere, *Gran Hermano* eta *Mujeres y hombres y viceversa* kutunenak dira. Hirugarren postua *Gu ta gutarrak* euskarazko saioari dagokio. Jarraian, ondo sailkatuta ageri dira *El conquistador del fin del mundo* eta *Herri txiki, infernu handi* gisako euskal ekoizpenak. Kulturarekin, umorearekin eta kirolarekin lotutako Euskal Telebistako beste saio batzuk ere gogoan izan dituzte nerabeek.



- Tolosaldean, Urola Kostan eta Debabarrenean gainerako eskualdeetan baino nabarmen gehiago aritzen dira Euskal Telebistako saioei buruz. Oarso - Behe Bidasoan, berriz, beste inon baino gutxiago komentatzen dira aipatu edukiak.
- Neskek dezente gehiago hitz egiten dute lagunartean *Gran Hermano*, *Mujeres y hombres y viceversa*, *Gu ta gutarrak*, *Masterchef* eta *Cámbiame* saioen gainean. Mutilek, aldiz, sarriago izaten dituzte hizpide kirolarekin lotutako telebista saioak. *Deportes Cuatro* eta *Kirola*, kasu.
- Euskaraz bizi direnek normalean gaztelaniaz mintzo direnek baino gehiago komentatzen dituzte ETBko saioak.

5. IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN SORKUNTZA

5.1. TEKNOLOGIA-EKIPAMENDUA

- Nerabeen gehiengoak Ikus-entzunezko edukiak –apalagoak ala konplexuagoak– sortzeko ahalmena du.
- Gazte askok –hirutik batek– kamera erabiltzen daki, ordenagailuan bideo bat edita dezake eta irudien bidez istorio bat kontatzeko gaitasuna du.
- Eskualde mailan, Donostialdean ematen dira emaitzarik onenak. Bertan, nerabe kopuru handi batek du Ikus-entzunezko edukiak sortzeko gaitasuna.
- Ikus-entzunezko edukiak sortzeko beharrezkoa den ezagutza ez dutenen artean, mutilak neskek baino askoz ugariagoak dira.
- Helduagoak diren heinean, Ikus-entzunezko edukiak sortzeko gaitasuna handiagoa da nerabeen artean.
- Ikastetxe pribatuetako ikasleek sare publikoek baino ezagutza handiagoa dute Ikus-entzunezko edukiak sortzeko tenorean.
- Estatus ekonomiko altuko ikasleek maila ekonomiko baxukoek baino ezagutza handiagoa dute Ikus-entzunezko edukiak sortzeko.

5.1.1. Argazkia eta testua lantzeko ezagutza maila

- Argazkia eta testua lantzeko ezagutza maila handia dute nerabeek. Argazkiak lantzeko programa errazak erabiltzeko gai dira gehienak. Horrezaz gain, ikasle kopuru esanguratsu batek ordenagailuan argazkiak lantzeko Photoshop edo gisako programak ere erabiltzeko gaitasuna du.
- Oro har, neskek mutilek baino ezagutza gehiago dute argazkia eta testua lantzeko. Inolako ezagutzarik ez dutenen artean ere nesken portzentajea mutilena baino askoz txikiagoa da. Edozelan ere, ezagutza maila altuena dutenen artean, mutilen portzentajea apurtxo bat handiagoa da.

5.1.2. Argazki eta bideo lehiaketak

- Nerabeen gehiengoak, lautik hiruk, ez du sekula parte hartu argazki edo bideo lehiaketa batean.

5.2. NERABEEK SORTZEN DITUZTEN EDUKI MOTAK ETA HORIEN HEDAPENA SAREAN

5.2.1. Sarera igotako bideoak

- Nerabeen erdiek baino gehiagok ez dute inoiz eurek egindako bideorik igo sarera. Bideorik igo dutenen artean, gehienek gaztelaniazko bideoak igo dituzte. Euskarazkoak igo dituztenen halako bi dira. Gutxiengo batek igo ditu bideoak ingelesez edo elebitan (euskaraz eta gaztelaniaz).
- Eskualde mailan, Donostialdean bi nerabetik batek igo du sarera inoiz berak sortutako bideoen bat. Bideoak sarera sekula igo ez dituzten gazteen portzentajerik altuenak, aldiz, Debagoienean eta Goierriin ematen dira.

- Eskualde guztietan, sareratutako bideoen artean, gaztelaniazkoak dira nagusi. Joera hori askoz ere nabarmenagoa da Oarso - Behe Bidasoan zein Donostialdean. Euskarazko bideoei dagokienez, Urola Kostak batezbesteko portzentajea bikoizten du kasik. Ingelesez egin eta sareratutako bideoen daturik onenak Donostialdean ematen dira.
- Instagram eta Youtube dira, hurrenez hurren, nerabeek euren bideoak sareratzeko gehien erabiltzen dituzten plataformak. Mutilek neskek baino dezente gehiago darabilte Youtube euren Ikus-entzunezko sorkuntzak argitara emateko. Alabaina, kontrakoa gertatzen da Instagramekin. Neskek mutilek baino areago darabilte-eta euren bideoak plazaratzeko.

5.2.2. Sarera igotako eduki motak

- Nerabeek gehien sareratzen dituzten edukiak sakelako telefonoaren bitartez egindakoa dira. Bereziki, sakelako telefonoarekin ateratako argazkiak eta grabatutako bideoak.
- Neskek mutilek baino areago erabiltzen dute sakelako telefonoa edukiak sortu eta sareratzeko.
- Ikastetxetik kanpo euskarazko eskolak jasotzen dituzten nerabeek besteek baino gehiago sareratzen dituzte telefono zein ordenagailu bidez argazkiak eta bideoak.

5.2.2.1. Sakelako telefonoarekin ateratako argazkiak

- Nerabeen erdiek baino gehiagok beren adiskideen irudiak edo haiekin ateratako argazkiak sareratzen dituzte. Jarraian, erretratu pertsonalak eta argazki muntaiak igotzen dituzte. Gutxiengo batek soilik egiten du meme-en aldeko hautua.
- Neskek mutilek baino sarriago egiten dituzte lagunekin argazkiak, erretratu pertsonalak eta argazki muntaiak. Meme-ak sareratzeko orduan bakarrik nagusitzen zaizkie mutilak neskei. Adinari erreparatuta, DBH4ko ikasleak dira erretratu pertsonalak eta argazki muntaiak gehien igotzen dituztenak. Euskara teknologian darabiltenek, azkenik, adiskideekin lotutako argazki gehiago sareratzen dituzte.

5.2.2.2. Sakelako telefonoarekin grabatutako bideoak

- Nerabeen artean gehien partekatzen diren edukiak lagunarteko kontuekin zerikusia dutenak dira. Kontzertu zein jaiekin harremana duten bideoak eta umorezkoak doaz jarraian.
- Mutilek baino bideo gehiago grabatu eta sareratzen dituzte neskek. Umorezko bideoen kasuan soil-soilik ematen da nolabaiteko oreka bat euren artean. Adinari dagokionez, helduagoak diren neurrian, kontzertu eta jaiekin harremana duten bideoak grabatzeko joera handiagoa dute.

5.2.2.3. Sakelako telefonoarekin grabatu eta editatutako bideoak

- Sakelako telefonoarekin bideoak grabatzeaz gain, aipatu bideoak automatikoki editatzen dituzten gazteak ere badira. Nerabe hauen erdiek bideo arruntak sortu eta sareratzen dituzte. Bideoklipak eta karaokedun bideoak igotzen dituztenak gutxiengo dira.
- Oraingo honetan ere, neskek mutilek baino sarriago grabatu, editatu eta sareratzen dituzte bideoak. Halaber, nerabe heldueneren artean nagusi dira jai eta kontzertuekin lotutako bideoak. Eta, euskaraz bizi direnen artean, berriz, lagunarteko bideoak dira arrakasta handiena dutenak.

5.2.2.4. Ordenagailu bidez editatutako bideoak

- Ordenagailu bidez bideoak editatzen dituzten lau ikasletik batek bideoak sareratzen ditu. Beste askok, istorio bat kontatzen duten bideoak igotzen dituzte. Oso gutxi egiten dute karaoke bideoen aldeko hautua.
- Ikastetxe pribatuetako ikasleak dira ordenagailu bidez editutako bideoak gehien sareratzen dituztenak.

5.2.2.5. Musika

- Nerabeek beraien sortutako musikadun bideoak partekatzen dituztenean, kantatutako abestien aldeko hautua egiten dute, batik bat. Gutxiago dira jotzen duten musika sareratzen dutenak.
- Ikastetxetik at euskarazko eskolak jasotzen dituztenek joera handiagoa dute euren musika oinarri duten bideoak sareratzeko.

5.2.2.6. Ahotsa

- Nerabe gehienek sarea darabilte ahots-mezuak partekatzeko. Lagunei txisteak edo txantxak bidali ohi dizkietenen portzentajea txikiagoa da.
- Mutilek neskek baino txiste eta txantxa gehiago partekatzen dituzte. Nesken artean, ostera, ahots-mezuek arrakasta handiagoa lortzen dute.

5.2.2.7. Bestelako edukiak

- Nerabeen parte txiki baina esanguratsu batek beste motatako edukiak sortu eta sareratzen ditu. Eduki horien artean, *gameplay* izenarekin ezagun direnak –bertan, bideojokoekin jolasean ageri dira nerabeak– eta, neurri apalagoan, tutorialak nabarmentzen dira.
- *Gameplay*-ak sortu eta sareratzen dituzten nerabeen artean, mutiak dira jaun eta jabe. Aitzitik, *musical-ly* aplikazioa nesken kontua da.

5.2.3. Maiztasun handienarekin sareratutako edukiak

- Sakelako telefonoaren bidez sareratutako edukiak dira nerabeen artean gehien partekatzen direnak. Gazte gehienek sakelako telefonoarekin berarekin ateratako argazkiak igo eta partekatzeko hautua egin ohi dute. Musikak ere arrakasta nahikoa du. Beste askok, bideoak –editatutakoak edo ez– sareratzen dituzte. Ordenagailu bitartez editatutako bideoak eta ahots artxiboak sarera igotzen dituzten gazteen kopurua, ordea, urria da.
- Ez dago aldaketa esanguratsurik eskualde mailan. Goierriko gazteak dira bideoak sareratzeko tenorean aktiboena; Debagoienekoak, aldiz, ahots artxiboak sarrien igotzen dituztenak. Orobat, Urola Kostako ikasleak dira sakelako telefonoaren bitartez egindako argazkietan portzentajerik altuena dutenak; eta, Tolosaldeakoak, musikan.
- Neskek mutilek baino ikus-entzunezko eduki gehiago sortu eta sareratzen dituzte. Argazkiak, bereziki.
- Euskara eguneroko bizitzan ez darabilten nerabeek darabiltenek baino bideo gehiago igotzen dituzte sarera.
- Ikastetxe pribatuetako ikasleek publikoetakoek baino argazki gehiago argitara ematen dituzte.

5.2.4. Ikus-entzunezko edukien sorkuntza: hizkuntza

- Gaztelania da nerabeek Ikus-entzunezko edukiak sortzeko sarrien aukeratzen duten hizkuntza. Euskara jarraian kokatzen da usu. Ingelesa da hirugarren aukera.
- Nerabeen erdiek baino gehiagok diote ez dutela Ikus-entzunezko edukirik sortzen euskaraz.
- Euskararen erabileraren harira, bi joera ezberdin islatzen dira eskualde mailan. Alde batetik, Tolosaldea, Urola Kosta, Debagoiena, Goierri eta Debabarrena eskualdeek Ikus-entzunezkoen sorreran euskara erabiltzeko joera handiagoa dute. Eta, bestetik, Donostialdeak eta Oarso - Behe Bidasoak, joera txikiagoa dute.

5.2.5. Ikus-entzunezko edukien sorkuntza: azpitoluak

- Nerabeek dute azpitoluak jartzeko ohiturarik sortzen dituzten Ikus-entzunezko edukietan. Halakorik egiten dutenean, gehiago dira sortutako euskarazko Ikus-entzunezkoek gaztelaniazko azpitoluak gehitzen dizkietenak, gaztelaniazkoek euskarazko azpitoluak jartzen dizkietenak baino. Ingeleseko azpitoluak, euskarazko nahiz gaztelaniazko Ikus-entzunezko edukietan, oso urriak izaten dira.
- Testudun bideo edo argazkiak sortzen dituztenean, nerabeek neurri berean erabiltzen dituzte euskara hutsa eta eredu elebiduna.

5.2.6. Ikus-entzunezko edukien sorkuntza: gailuak

- Sakelako telefonoa da bideoak, argazkiak eta musika sortzeko eta kontsumitzeko gailu elektronikoko nagusia.
- Oro har, neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dute sakelako telefonoa Ikus-entzunezkoak sortzeko. Bestalde, mutilek neskek baino apur bat gehiago darabilte ordenagailua zeregin bererako.
- Ordenagailurik ez duten nerabeek tableta gehiago erabiltzen dute musika edukiak sortzeko.

5.2.7. Ikus-entzunezko edukiak sareatzeko erabiltzeko plataformak

- Nerabeen erdiek baino gehiagok Ikus-entzunezko materiala modu pribatuan partekatzen dute sarearen bitartez.
- Instagram eta WhatsApp dira Ikus-entzunezko edukiak modu pribatuan partekatzeko gazteek gehien erabiltzen dituzten plataformak.
- Nerabe askok ere Snapchat plataforma darabilte Ikus-entzunezko edukiak modu pribatuan partekatzeko. DBH2 ikasten ari diren neskek erabiltzen dute, batik bat. Mutilek nahiago dituzte Youtube eta Vimeo.
- Hein handi batean, euskaraz bizi ez diren nerabeek darabiltzate Messenger eta Facebook sare sozialak Ikus-entzunezko edukiak modu pribatuan partekatzeko. Azken honek, hain zuzen ere, arrakasta handia du maila baxu eta ertaineko ikasleen artean.
- Ikus-entzunezko edukiak sarean modu publikoan partekatzea ez da oso ohikoa nerabeen artean. Lau nerabetik bakar batek soil-soilik Ikus-entzunezko sorkuntzak eskegi baititu sarean beste batzuek ikus ditzaten.
- Youtube eta Instagram dira Ikus-entzunezko edukiak modu publikoan partekatzeko gazteek gehien erabiltzen dituzten plataformak. WhatsApp ere oso erabilia da. Jarraian, Snapchat kokatuko litzateke.
- Esparru pribatuan gertatzen den moduan, neskek nabarmen gehiago erabiltzen dute Snapchat eta mutilek nahiago dute Youtube.

5.2.8. Sareratutako bideoen iruzkinak

- Gazte gehienek ez dute adiskideekin sareratutako bideorik komentatzen. Bideoak komentatzen dituztenek, nagusiki, WhatsApp –elkarrizketa pribatuetan nahiz talde tematikoetan– darabilte horretarako. Iritziak eta iradokizunak elkar trukatzeko tenorean, nerabeen bigarren aukera bihurtzen da Instagram plataforma.
- Nerabeen artean gazteen direnek Twitter sare soziala edo WhatsApp plataforma aukeratzen dute iruzkinak egiteko. Helduenek, ostera, nahiago dute bideoen inguruan adiskideekin aurrez aurre hitz egitea.
- Neskek bideoak eta ikus-entzunezko edukiak komentatzeko mutilek baino gehiago erabiltzen dituzte Instagram eta WhatsApp. Gainera, mutilek baino joera handiagoa dute ere iruzkinak aurrez aurre egiteko. Mutilen artean nabarmen gehiago dira bideoak komentatzeko ohiturarik ez dutenak. Besteek, Twitter zein Facebook gehiago baliatzen dituzte.
- Euskaraz bizi diren nerabeek sareratzen dituzten bideoak edo bestelako ikus-entzunezko edukiak aurrez aurre komentatzeko ohitura handiagoa dute. Euskaraz bizi ez direnek, ordea, nabarmen gehiago jotzen dute Facebook, Instagram eta Twitter-era euren iruzkinak plazaratzeko.

5.2.9. Sareratutako edukiak jarraitzeko erabilitako hizkuntza

- Gaztelania da sareratutako ikus-entzunezkoen jarraipena egin eta iritziak partekatzeko erabilitako hizkuntza nagusia. Jarraian, eredu elebidunak –gaztelania lehenesten duena eta euskara lehenesten duena– datoz. Eta, azkenik, euskara hutsa.
- Bi joera nagusi nabarmentzen dira eskualdeen analisisan. Hala, Tolosaldeak, Urola Kostak eta Debagoienak euskararekiko atxikimendu nabariagoa erakusten dute. Bertan, nabarmen gehiago dira euskara hobesten duen eredu elebidunaren alde egiten duten gazteak. Euskara hutsa baliatzen dutenak ere ugariagoak dira. Donostialdean eta Oarso - Behe Bidasoan, ostera, nerabeek dezente gehiago darabilte gaztelania.
- Sare pribatuko ikasleen artean gehiago dira ikus-entzunezko edukien jarraipena nahiz iruzkinak ere gaztelania hutsez egiten dituztenak.
- Nesken artean, gehiago dira gaztelania lehenesten duen eredu elebidunaren alde egiten dutenak. Mutilen artean, berriz, gehiago dira edukien jarraipena eta komentarioak gaztelaniaz soilik egiten dituztenak.
- Euskararen erabilera kontuan hartuta, euskaraz bizi direnen artean antzeko proportzioan banatzen dira ehunekoak gaztelania soilik erabiltzen dutenen eta eredu elebidunetara jotzen dutenen artean. Horrez gain, horien artean gehiago dira euskara hutsa darabiltenak. Aitzitik, eguneroko bizitzan euskaraz mintzo ez direnek muturreko joera dute. Izan ere, gehienek gaztelania hutsez egiten dituzte aipatu ikus-entzunezko edukien jarraipena eta komentarioak.

5.3. YOUTUBERRAK, BIDEO TUTORIALAK ETA KOMUNITATE BIRTUALAK

5.3.1. Youtuberren jarraipena

- Estatu mailako youtuberrak dira jarraitzaile gehien dituztenak: Elrubius eta Wismichu. Halaber, gaztelania da nagusi.
- Bideojokoak eta *gaming* youtuberrak dira gazteak erakartzen dituztenak. Mutilak dira, zalantza izpirik gabe, gisa honetako youtuberren kanalak gehien kontsumitzen dituztenak.
- Nesken presentzia youtuberren artean urria da. Ez dute eragin handirik.
- Tokikotasuna eta gertutasuna ez dira youtuberrak jarraitzeko pizgarri.
- Euskaraz aritzen diren youtuber gutxi daude.
- Neskek eta mutilek jarraitzen dituzten youtuberrak arras ezberdinak dira. Bideojokoan inguruan aritzen diren youtuberren zale dira mutilak, batik bat. Neskek, aldiz, youtuber klasiko eta askotarikoak dituzte atsegina. Moda eta edertasuna dira euren interes nagusiak.
- Euskaraz bizi direnek bideojokoekin lotutako youtuberrak gutxiago jarraitzen dituzte. Euskara eguneroko bizitzan baliatzen ez dutenen artean, ordea, bideojokoei buruz aritzen direnak dira jaun eta jabe.
- Zenbat eta estatus ekonomiko altuagoa izan, orduan eta youtuberrak jarraitzeko ohitura txikiagoa dago.

5.3.2. Youtuberrak eta hizkuntza

- Gipuzkoako gazteak ez dira youtuberrak, youtuberren jarraitzaile baizik. Youtuber kopurua oso urria da, zinki. Sortzaile baino, kontsumitzaile dira.
- Adinean aurrera egin ahala, youtuber bihurtzeko grina txikiagoa da.
- Youtube kanal bat dutenak, gehienbat, euskaraz bizi ez direnak dira.
- Kanala duten youtuberren artean, gaztelania da nagusi den hizkuntza. Gipuzkoako youtuberrak gaztelan aritzen dira nagusiki. Kanal elebidunak ere euskara hutsekoak baino ugariagoak dira.
- Euskaraz bizi direnak eta teknologia aipatu hizkuntzan baliatzen dutenak dira Youtube kanal elebidun gehien sortzen dutenak.

5.3.3. Bideo tutorialak

- Interes gehien pizten dituzten bideo tutorialak hauek dira: bideojokoak eta moda, ile-apainketa zein makillajea. Jarraian, teknologia, kirolak eta bidaiak lantzen dituztenak sailkatzen dira.
- Bideo tutorialen kasuan ere, nerabe gipuzkoarrak, sortzaile bainoago, kontsumitzaile dira.
- Adinean gora egin ahala, bideo tutorialen kontsultek ere gora egiten dute. Joera hau bideo tutorial mota ororekin ematen den arren, askoz ere nabarmenagoa da lau kategoriatan: moda, teknologia, bidaiak eta gastronomia.
- Nesken eta mutilen arteko ezberdintasun handiek agerian uzten dute generoaren araberako interesak eta gustuak kontrajarriak direla. Neskek, moda, ile-apainketa zein makillajea, bidaiak eta gastronomia jorratzen dituzten bideo tutorialak dituzte gustuko. Mutilek, baina, bideojokoak, kirolak eta teknologia lantzen dituztenak gogokoago dituzte.
- Euskaraz bizi direnek bideojokoekin lotutako bideo tutorial gutxiago kontsumitzen dituzte; gaztelan bizi direnek, ordea, gehiago. Beste horrenbeste gertatzen da pelikulak egiten ikasteko bideo tutorialekin.

- Nerabeek bideo tutorialak ikusteko darabilten hizkuntza gaztelania da. Ondoren, ingelesez kontsumitzen dituzte. Hamar gaztetik bakar batek soil-soilik ikusten ditu bideo tutorialak euskaraz.
- Tolosaldean kontsumitzen dira bideo tutorial gehien euskaraz. Eta, Donostialdean eta Oarso - Behe Bidasoan, gutxien. Azken bi eskualde hauetan, euskarazkoak baino areago ikusten dituzte ingelesezkoak.

5.3.4. Bideo tutorialen sorkuntza

- Gipuzkoako nerabeak ez dira Youtubeko eduki sortzaile, eduki kontsumitzaile baizik.
- Ikasketa mailan aurrera egin ahala, bideo tutorialak sortzeko joera murrizten da.
- Mutilek neskek baino Youtubeko bideo tutorial gehiago sortzen dituzte.
- Bideo tutorialen egileak, batik bat, gaztelaniaz bizi diren gazteak dira; euskaraz bizi direnek gutxi sortzen baitituzte.
- Mutilek neskek baino bideo tutorial gehiago sortzen dituztenez gero, nagusi direnak mutilen interesekin lotuta daude: bideojokoak, kirolak eta teknologia. Edozelan ere, moda, ile apainketa eta makillajeari buruzkoak ere asko dira -bideojokoetakoak eta kirolekoak eta gero, ugariak- eta neskek ekoizten dituzte.
- DBH4ko ikasleak dira bideo tutorial gehien sortu eta gutxien kontsumitzen dituztenak.
- Nerabeen gehiengoak, gazteen erdiek baino gehiagok, gaztelaniaz sortzen ditu bideo tutorialak. Segidan, elebidunak -gaztelania eta euskara lehenesten dutenak, hurrenez hurren- dira gehien sortzen dituztenak. Euskarazko bideo tutorialen presentzia, berriz, oso txikia da.
- Urola Kostako nerabeak dira bideo tutorialak euskara hutsez gehien sortzen dituztenak. Tolosaldekoak eta Goierrikoak dira, berriz, euskara lehenesten duten bideo tutorial elebidunak gehien ekoizten dituztenak.
- Mutilak dira euskara hutsean sortutako tutorial gehien egiten dituztenak. Izan ere, mutilak dira tutorial gehien ere sortzen dituztenak.
- Euskaraz bizi diren gazteak dira euskara hutseko tutorialak eta euskara nagusi den bideo elebidunak gehien sortzen dituztenak. Euskaraz bizi ez diren gazteak dira, aldiz, gaztelaniazko bideo tutorialak eta gaztelania lehenesten dutenak gehien ekoizten dituztenak.

5.3.5. Bideojokoei buruzko komunitate birtualak

- Nerabeen gehiengo zabal batek ez du *Game Erauntsia* bideojoko komunitatea ezagutzen.
- Aukera emanez gero, gazteen ia erdiak ez lirateke bideojokoei buruzko euskarazko komunitate baten kide izango, bideojoko komunitate oso onak daudelako dagoeneko gaztelaniaz zein ingelesez.
- Bideojokoei buruzko euskal komunitate baten kide izateko prest dauden gazteen artean, komunitatearen beraren kalitatea baino, beste euskaldunekin gogoko gaiei buruz hitz egiteko aukera lehenesten da.
- Tolosaldeko, Debagoieneko eta Debabarreneko gazteak dira bideojokoei buruzko euskarazko komunitate baten kide izateko aldeko jarrera nabarmenena dutenak. Donostialdekoek eta Oarso - Behe Bidasoakoek, baina, ez dute euskal komunitate bateko kide izateko interesik.
- Bideojokoei buruzko euskarazko komunitatearen kide direnen artean, mutilak dira nagusi.
- Euskaraz bizi direnek euskarazko bideojoko komunitate baten aldeko jarrera dute. Euskaraz bizi ez direnek, ordea, ezaxola handia erakusten dute aukera horren aurrean.

5.4. BULLYING-A

- Nerabeen kopuru esanguratsu batek, hamar gaztetik lauk, aitortu du WhatsAppeko talderen batetik kanporatu izan dutela noizbait.
- Adinean aurrera egin ahala, gero eta gehiago dira WhatsAppeko talde batetik kanporatuak izan direla aitortzen duten nerabeak.
- WhatsAppeko talde batetik kanporatuak izan direla aitortzen duten nerabeen kopurua handiagoa da euskaraz bizi ez direnen artean.
- Nerabeen gehiengoak dio ez duela mehatxuzko mezurik jaso sakelako telefonoaren bitartez. Lau gaztetik bakar batek soil-soilik onartu du halako mehatxurik jaso izana.
- Euskara egunerokotasunean, gailu teknologikoetan nahiz ikasketatan ere darabilten nerabeen artean askoz gutxiago dira mehatxuzko mezuak jasotzen dituztenak.
- Mehatxuzko mezuak jaso dituzten nerabe gehienek WhatsApp bitartez heldu zaizkiela diote.
- Mutilek neskek baino mehatxuzko mezu gehiago jasotzen dituzte Facebook eta Twitter bitartez.

6. HEZKUNTZA EZ OFIZIALA: EUSKARAZKO INFORMAZIO ITURRIEN KONTSUMOA ETA SORKUNTZA

6.1. IDATZIAK, IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA FOROAK

- Gazte gehienek ikasketak osatzeko sareko iturri ez ofizialak darabiltzate: idatziak (Wikipedia, PDFko testuak eta lan amaituak), Ikus-entzunezkoak (dokumentalak eta bideo tutorialak) eta foroak.
- Wikipedia da nerabe gehienek euren ikasketetako lanak osatzeko behar duten informazioa bereganatzeko darabilten iturri nagusia. Ondoren, askoz gutxiago bada ere, bideo tutorialak darabiltzate.
- Adinean aurrera egin ahala, orduan eta gehiago kontsultatzen dira informazio iturri ez ofizialak.
- Ikastetxe pribatuetako ikasleak dira euren ikasketak osatzeko sareko informazio iturri ez ofizialak gehien kontsultatzen dituzten nerabeak.
- Neskek mutilek baino areago kontsultatzen dituzte sareko informazio iturri ez ofizialak. *On line* testuak eta PDFak, bereziki.

6.2. GAILUAK

- Ordenagailua da nerabeek ofizialak ez diren sareko informazio iturriak kontsultatzeko gehien darabilten gailua. Jarraian, sakelako telefonoa erabiltzen dute. Tabletaren erabilera urria da oso.
- Ordenagailuan gehien kontsultatzen diren iturriak idatzizko informazioa eskaintzen dutenak dira: Wikipedia, irakasgaiekin lotutako *on line* testu zein PDFak eta sarean aurki daitezkeen lan amaituak.
- Bideo tutorialak dira sakelako telefonoan eta tabletan nerabeek gehien bilatzen dutena.
- Tableta gutxi erabiltzen dute nerabeek euren ikasketetako lanak osatzeko behar duten informazioa erdiesteko. DBH1eko ikasleak dira, hain justu, zeregin horretarako tableta gehien darabiltenak.
- Euskaraz bizi direnek eta teknologian aipatu hizkuntza darabiltenek sakelako telefonoa gutxiago erabiltzen dute Wikipedia kontsultatzeko. Euskaraz bizi ez direnek, ostera, gehiago darabilte sakelako telefonoa Wikipediako informazioa begiratzeko.

6.3. HIZKUNTZA

- Gaztelania da nerabeek sareko iturriak kontsultatzeko gehien erabiltzen duten hizkuntza. Ondoren, ingelesa darabilte, eta, azkenik, euskara.
- Ikus-entzunezko iturriak dira gaztelaniaz gehien bilatzen direnak: bideo tutorialak eta dokumentalak. Jarraian, foroak kokatuko lirarteke.
- Idatzizko iturriak -Wikipedia, irakasgaiekin lotutako *on line* testu eta PDFak eta sarean aurki daitezkeen lan amaituak- dira euskaraz gehien kontsultatzen diren informazio iturriak. Kasu honetan, gainera, euskarazko kontsumo maila gaztelaniazkotik oso hurbil dago. Jarraian, foroak doaz. Eta, azkenik, ikus-entzunezkoak.
- Debagoieneko eta Tolosaldeko nerabeak dira Wikipedia eta bideo tutorialak ere euskaraz gehien kontsumitzen dituztenak. Aitzitik, Donostialdea eta Oarso - Bidasoako gazteak dira aipatu informazio iturriak gutxien kontsumitzen dituztenak euskaraz.
- Euskaraz bizi direnak dira sareko informazio iturriak euskaraz gehien kontsultatzen dituztenak. Euskaraz bizi ez direnek, ordea, askoz gutxiago kontsultatzen dituzte.

7. EZTABAIDA TALDEAK

7.1. DEBAGOIENA. DBH1KO IKASLEAK

- Nerabeen artean Internet edo *on line* saioek baino pisu handiagoa du telebistak oraindik ere.
- Telesailak gaztelaniaz ikusten dituzte nagusiki. Jatorrizko hizkuntzan ikusten dituztenean ere, gaztelaniazko azpigituluak darabiltzate.
- Youtuberrak jarraitzeko, bideo tutorialak ikusteko zein musika kontsumitzeko ere erabiltzen dute Youtube. Youtuberrak eta bideo tutorialak gaztelaniaz jarraitzen dituzte eta, musika, berriz, ingelesez.
- Mutilak dira, neurri handi batean, bideojokoekin aritzen direnak. Gehienek, bideojoko bortitzak kontsumitzen dituzte. Neskek, beste mota batekoak dituzte gustuko. Nagusiki, gaztelaniaz jolasten dira.
- ETB1 kontsumitzen dute, gehienbat. Goiena Telebista ere ikusten dute, baina ETB1 baino dezente gutxiago.
- Sortzaile baino areago, kontsumitzaile dira. Youtuber gisa ari direnek bideojokoekin lotutako kontuak jorratzen dituzte. Gaztelaniaz.
- Ez dute iruzkinak egiteko ohitura handirik. Sarritan emotikono edo hitz solteen bitartez ematen dute euren iritzia.
- Debagoieneko nerabeek euskara euren egunerokotasunean darabilten hizkuntza da. Hortaz, euskarazko ikus-entzunezkoen aurrean jarrera positiboa dute. Gaztelaniazkoen kalitate eta erakargarritasun bereko ikus-entzunezko edukiak eskainiz gero, gehiago kontsumituko lituzkete.

7.2. GOIERRI. DBH2KO IKASLEAK

- Goierriko nerabeen artean ere Internet edo *on line* saioek baino pisu handiagoa du telebistak. Gehienek telebista euskaraz ikusten dute.
- Telesailak, filmak, kirol emanaldiak, albisteak, bideojokoak, youtuberrak eta bideo tutorialak ere gaztelaniaz kontsumitzen dituzte nagusiki. Musika eta bideoklipak, aldiz, ingelesez gehienbat.
- Nerabeek sakelako telefonoa eta ordenagailua darabiltzate, bereziki, kirola, musika eta bideojokoekin lotutako materiala ere kontsumitzeko.
- Bideojokoak ikusteko Youtube darabilte nerabeek. Bideojokoekin jolasteko, aldiz, sakelako telefonoa, bideokontsola eta tableta, batik bat.
- ETB1 kontsumitzen dute, bereziki. Goierri Telebista ere ikusten dute, baina oso noizbehinka.
- Sortzaile baino gehiago, kontsumitzaile dira. Bideoak sortu eta sareratzeko adina ezagutza duten arren, ez dute sortzaile izaerarik.
- Youtube da gehien erabiltzen duten plataforma. Iruzkinak egiteko, ostera, nahiago dute Instagram. Iruzkinak, normalean, euskaraz egiten dituzte.
- Goierriko nerabeek euskara euren egunerokotasunean erabiltzen duten hizkuntza da. Beraz, youtuberrak, bideo tutorialak, bideojokoak eta beste ikus-entzunezko edukiak euskaraz eskainiko balitzaizkie, kontsumituko lituzkete. Euskarazko ikus-entzunezkoen aldeko jarrera garbia dute. Are gehiago, ezinbestekotzat jotzen dute euskarazko eskaintza handitzea.

7.3. DONOSTIALDEA. DBH3KO IKASLEAK

- Youtube bidezko ikus-entzunezko edukiak kontsumitzen dituzte, bereziki. Sareko edukiak telebistakoak baino erakargarriagoak zaizkie.
- Gaztelaniazko ikus-entzunezko edukiak ikusten dituzte nerabeek batez ere. Ingelesak ere leku esanguratsua du. Euskarazko ikus-entzunezko edukiak, ordea, gutxi kontsumitzen dituzte.
- Euskarazko ikus-entzunezko edukien kontsumo urriaren arrazoiak: ez dago eduki nahikorik euskaraz, nerabeek gaztelaniaz aritzeko ohitura dute eta deseroso sentitzen dira euskaraz eta, horrezaz gain, euskara ikastetxearekin eta gaztelania aisiarekin lotzen dituzte.
- ETB kontsumitzen dute, euskaraz zein gaztelaniaz. Askok ez dute Hamaika Telebista ezagutzen, eta beste askok, ez dute ia kontsumitzen.
- Ikus-entzunezko eduki gutxi sortzen dituzte. Sortzaile bainoago, kontsumitzaile dira eta. Sortzen dutenek Youtube darabilte eta bideojokoekin lotura duten edukiak plazaratzen dituzte. Gaztelaniaz. Izan ere, halaxe ikusleria zabal batera irits daitezkeela uste dute.
- Donostialdeko nerabeek, euskara ondo ezagutu arren, gaztelaniaz aritzeko joera handia dute. Ikastetxean eta derrigortasun modura bizi dute euskara askok. Euskarazko ikus-entzunezko edukiak eskainiko balitzaizkie, gehienek gaztelaniaren aldeko hautua egiten jarraituko lukete. Gainontzekoek aproba egingo lukete edukiak kalitate onekoak eta erakargarriak balira bakar-bakarrik.

7.4. OARSO - BEHE BIDASOA. DBH4KO IKASLEAK

- Sareak -Youtube eta sare sozialak, bereziki- telebistak baino pisu handiagoa du nerabeen artean.
- Filmak, kirol emanaldiak, albisteak, youtuberrak, bideo tutorialak eta beste ikus-entzunezko eduki gehienak ere gaztelaniaz kontsumitzen dituzte. Bideojokoak, bideo klipak eta musika, aldiz, ingelesez bereziki. Euskarak kasik presentziarik ez du kontsumitzen dituzten ekoizpenetan.
- ETB1 ezagutu arren, inork gutxi kontsumitzen du. Hamaika Telebista ez dute aipatu ere egiten.
- Ikus-entzunezko edukiak sortzeko, sareratzeko eta partekatzeko gaitasuna dute nerabe gehienek. Hala ere, gutxi batzuek sortzen dute. Beste guztiak kontsumitzaile hutsak dira. Youtube darabilte nagusiki. Gaztelaniaz sortzen dute erosotasunagatik. Aipatu hizkuntzan errazago moldatzen direlako. Iruzkina ere, gehienbat, gaztelaniaz egiten dituzte.
- Gaztelania hutsez aritzeko ohitura dute. Ikastetxean aritzen dira euskaraz bakarrik eta euskal hizkuntza derrigortasun moduan bizi dute. Horrek, euskararekiko amorrua eragiten die haietako askori. Hortaz, euskarazko ikus-entzunezko edukiak eskainiko balitzaizkie ere, gaztelaniaz kontsumitzen jarraituko lukete gehienek. Bakan batzuek aproba egingo lukete soil-soilik kalitatezko edukiak eskura balituzte.

7.5. AZKEN GOGOETA

Eskualde mailan, bi joera arras ezberdin bereizten dira:

- Debagoieneko eta Goierriko nerabeak euskaraz bizi dira. Euskara euren eguneroko bizitzan darabilte. Euskaraz gaztelaniaz baino erosoago sentitzen dira eta ikus-entzunezkoen esparruan gaztelaniaz gehiago aritzen badira, aukera faltagatik da. Euskarazko ikus-entzunezko edukien gabezia bizi dutelako, alegia. Ez alferrik, euskarazko ikus-entzunezko edukiak kontsumitzearen aldeko jarrera irmoa erakusten dute.
- Donostialdeko eta Oarso - Behe Bidasoako nerabeek, berriz, gaztelaniaz aritzeko joera handia dute eta euskararen erabilera ikastetxera mugatzen dute, bereziki. Edozelan ere, biek ala biek euskal hizkuntza derrigortasun gisa bizi arren, euskararen aldeko jarrera agerikoagoa dute Donostialdekoek. Oarso - Behe Bidasoakoek, amorru puntu bat lagun, ez baitute euskarazko ikus-entzunezko edukiak kontsumitzeko borondaterik.

II. Ondorio nagusiak

1. *Smartphone* sakelako telefonoa da nerabeen arteko harremanen ardatz nagusia eta ikus-entzunezko edukien kontsumo zein sorkuntza ere ahalbidetzeko tresna ezinbestekoa.

Nerabeek kultur produktuetara –ikus-entzunezko edukietara, bereziki– iristeko darabiltzaten bitartekoak aztertuta, bi funtsezko auzi plazaratzen ditu ikerketak:

- *Smartphone* sakelako telefonoa (kontsumo indibiduala) eta telebista (familiarekin) dira nerabeek euren kultur kontsumoa egiteko lehenesten dituzten bitarteko teknologikoak. Horrenbestez, datuek argi erakusten duten legez, ordenagailua eta tableta bigarren mailan geratzen dira. Izan ere, erreminta pedagogiko bihurturik, hezkuntzarekin lotzen dituzte gazteek eta aisialdirako izan zezaketen erakargarritasuna galtzen dute. Irratiak, zinemak eta gainontzeko bitartekoek are eta harrera apalagoa dute.
- Kultur kontsumoaz harago, nerabeen arteko giza harreman ororen oinarrizko zutabe bilakatu da *Smartphone* sakelako telefonoa.

Hortaz, ebidentzia hauek abiapuntutzat harturik, hainbat gogoeta egin daitezke:

- Epe laburrera, bederen, nerabeen Ikus-entzunezko kontsumo estandarrak (telesailak, filmak, *reality*-ak, kirola...) telebistaren bitartez izaten jarraituko du. Hala, gauzak horrela, aisialdirako edukiontzi izatera mugatuko da telebista lasterrera. Izan ere, *smart* telebistak familiaren barne kontsumora bideratutako egungo telebista-hargailuen ezaugarriak izugarri hobetu ditu (sareko plataformetarako sarbide interaktiboa, kasu). Eta, horrek, ikus-entzunezko edukien eskaintza zabal eta malguagoa dakarkie hartzalerei.
- Edozelan ere, *smartphone* sakelako telefonoak bi abantaila nagusi ditu telebistaren aldean:

Alde batetik, nerabeei aisialdira banan-banan iristea ahalbidetzen die *smartphone* sakelako telefonoak. Horrek ezinbesteko garrantzia du, zinez. Adu askoren aburuz, banakakoa izango baita etorkizunean nagusi izango den ikus-entzunezko kontsumo mota. Eta, bestetik, "gauzak egiteko makina" ere bada *smartphone* sakelako telefonoa. Komunikazio, erreproduzio eta kontsumo tresna ez ezik, irudiak eta soinuak grabatu, editatu eta parteka baititzake. Alegia, ikus-entzunezko edukien sortzaile eta igorle gisa ere funtziona dezake.

Horrenbestez, urte gutxi barru etorkizuneko makina hegemonikoa izatera deitua dago *smartphone* sakelako telefonoa. Hau hala izanik, ikus-entzunezko edukien kontsumo zein sorkuntzara zuzendutako telefono aplikazioen sustapena bultzatzea nahitaezkoa dirudi.

2. Eskualde mailan, arrakala bat dago. Donostialdeak eta Oarso-Behe Bidasoak beste eskualdeek baino jarrera uzkurragoa dute euskararekiko. Euskara oinarri hartuta, bi eremu geografiko arras ezberdin bereizten dira:

- 1. eremua: Tolosaldea, Goierri, Urola Kosta, Debagoiena eta Debabarrena.
- 2. eremua: Donostialdea eta Oarso - Behe Bidasoa.

Ikerketan parte hartu duten bi eremuetako ikasleek euskaraz ikasten duten arren, euskal hizkuntzaren erabilera eta harekiko enpatia zein afektibitatea ere askoz handiagoak dira lehen eremuko eskualdeetan. Bigarren eremukoetan, ostera, euskararen aldeko jarrera apalagoa da.

Jarrera horien isla argia dira aipatu bi eremuetan euskarazko Ikus-entzunezko edukien kontsumoan zein sorkuntzan ere ematen diren emaitzak. Izan ere, lehen eremuko eskualdeetan euskarazko Ikus-entzunezko gehiago kontsumitzen eta sortzen dira bigarren eremukoetan baino. Euskarazko film, telesail, telebista-saio eta gisako Ikus-entzunezkoen kontsumoan, hain zuzen ere, emaitzik eskasenak beti ematen dira Donostialdean eta Oarso - Behe Bidasoan. Eta, onenak, berriz, lehen eremuan. Tolosaldean, bereziki. Etengabe errepikatzen den fenomeno da, egiazki. Hori guztia gutxi balitz bezala, gauza berbera gertatzen da nerabeek beraiek sortzen dituzten Ikus-entzunezkoen kasuan nahiz sare sozial eta sakelako telefonoaren bidezko iruzkinetan ere.

Horrezaz gain, arestian adierazi legez, euskarak lehen eremuan ikuspegi afektibotik jasotzen duen harrera ere askoz hobea da bigarrenean baino. Euskaraz bizi eta euskarazko Ikus-entzunezko edukiak kontsumitzen nahiz sortzen dituzten nerabeek ere portzentaje handiagoak erdiesten dituzte lehen eremuko eskualdeetan. Gainera, inkestako datuek nabarmentzen dutena ikerketako alde kualitatiboaren eztabaida taldeen emaitzek berresten dute. Ez alferrik, lehen eremuko nerabe gehienek euren egunerokotasunean euskara darabilte eta euskaraz kontsumitzearen aldeko jarrera argia dute. Ez da halakorik jazotzen Donostialdeko eta Oarso - Behe Bidasoakoen artean.

3. Genero-ezberdintasun handiak daude nerabeen artean Ikus-entzunezko edukien kontsumo eta sorkuntzari dagokienez.

Neskek eta mutilek jarrera arras ezberdina dute Ikus-entzunezko edukiekiko. Ezberdintasun horiek guztiak ondorengo esparruetan nabarmentzen dira:

Gailuen erabilera:

- Neskek mutilek baino gehiago darabiltzate ordenagailua, tableta eta *smartphone* sakelako telefonoa. Horren ondorioz, mutilak baino areago ere aritzen dira sarean (WhatsApp, Snapchat, Facebook, Twitter...). Halaber, neskek mutilak baino sarriago doaz zinemara, telebista gehiago ikusten dute eta Youtube plataforman ere maizago aritzen dira. Mutilek, aldiz, irratia entzuten dute gehiago -kirol saiok, batik bat- eta bideokontsola ere askoz gehiago erabiltzen dute.

Ikus-entzunezko edukien kontsumoa:

- Filmak ikusterakoan (zineman zein telebistan), bereziki, genero erromantikoa eta drama dituzte atsegin neskek. Mutilek, ordea, akziozko eta fantasiako pelikulak dituzte kutunago.
- Neskek mutilek baino gehiago kontsumitzen dituzte albistegiak, saio arrosak, *reality*-ak eta bideoklipak. Mutilek, berriz, neskek baino askoz gehiago ikusten dituzte kirol saiok.
- Neskek mutilek baino areago kontsumitzen dituzte ETB1eko saiok -*Go!azen* telesaila ikusten duten nesken portzentajea mutilena halako bi da- eta euskarazko filmak. Alegia, mutilek baino dezente gehiago kontsumitzen dituzte euskarazko Ikus-entzunezkoak neskek.
- Youtuberrak eta bideo tutorialak aintzat harturik, neskek gogokoago dituzte edertasuna, moda, gastronomia eta bidaiekin lotura dutenak. Mutilek, bereziki, bideojokoekin harremana duten youtuber eta bideo tutorialak gustuko dituzte.

Ikus-entzunezko edukiak sortzeko beharrezkoa den ezagutza:

- Oro har, neskek mutilek baino ezagutza gehiago dute Ikus-entzunezko edukiak sortzeko tenorean. Programa profesionalen erabileran mutilen portzentajea zertxobait handiagoa bada ere, neskek nagusi dira-eta beste kasu guztietan; *smartphone* sakelako telefonoaren bitartez Ikus-entzunezko edukiak sortzeko programa ez profesionalen maneian, bereziki.

Neskek mutilak baino sortzaileagoak dira:

- Neskek mutilek baino Ikus-entzunezko eduki gehiago -argazkiak eta bideoak, batez ere- sortu eta sareratzen dituzte. Mutilak nagusi dira bideojokoei buruzko bideo tutorialen sorkuntzan.

4. Adinean aurrera egin ahala, nerabeek Ikus-entzunezko eduki gehiago kontsumitu, sortu eta sareratzen dituzte.

Heldu ahala, Ikus-entzunezko edukien kontsumoan zein sorkuntzan aldaketa handiak ematen dira nerabeen artean. Kontsumoari erreparatuz gero, filmak eta telesailak ikusteko joera areagotu egiten da. Horrezaz gain, *reality* eta albiste gehiago ere kontsumitzen dira. Zinemara joateko maiztasuna, baina, txikitu egiten da. Edukien kontsumoa ez ezik, kontsumitzeko modua ere aldatzen da. Telebista tradizionala familia artean ikusteko ohiturak behera egiten du eta film zein telesailak *on line* eta bakarrik edo lagunartean kontsumitzen dira, nagusiki. Hala, ordenagailuaren eta *smartphone* sakelako telefonoaren erabilera areagotzen da. Azken horri lotuta, nerabeek tarte handiagoa eskaintzen diote ere txateatzeari, txiokatzeari eta, batez ere, WhatsAppen aritzeari. Bestalde, adinarekin, gazteek ikusten duten euskarazko edukien kopurua urritu egiten da. Sorkuntzaren alorrari dagokionez ere, zenbat eta helduago, orduan eta Ikus-entzunezko edukiak ekoizteko ezagutza handiagoa dute nerabeek.

5. Sortzaile bainoago, kontsumitzaile dira nerabeak. Ikus-entzunezkoak sortzeko adina ezagutza duten arren, gutxiengo batek soilik sortzen du.

Nerabe gehienek Ikus-entzunezko edukiak -apalagoak ala konplexuagoak- sortzeko ezagutza teknologiko nahikoa duten arren, gutxi batzuk dira sortzaile. Gehiengoak, gainera, sakelako telefonoaren bitartez egindako argazkiak zein bideoak sareratu eta partekatu ohi ditu. Oso portzentaje txiki batek sortzen ditu bideo tutorialak. Eta, youtuber direnak, kasik marjinalak dira. Are gehiago, euskaraz aritzen badira. Ez alferrik, euren aisialdiko denbora tarterik txikiena Ikus-entzunezko edukiak sortu eta partekatzeari eskaintzen diote nerabeek. Hortaz, nerabe gipuzkoarrak, sortzaile baino, kontsumitzaile dira.

6. Ikastetxe pribatuetan publikoetan baino gutxiago kontsumitzen eta sortzen da euskaraz.

Ikastetxe pribatuetan publikoetan baino gehiago dira euskaraz ezer ere ez kontsumitzen dutenak. Hala, ez da harrizkoa ikastetxe pribatuko ikasleek publikoek baino gutxiago ikustea ETB1 eta euskarazko zinema. Ildo beretik, ikastetxe pribatuko ikasleek ere nabarmen gehiago jotzen dute gaztelaniara.

III. AMIA

(Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak)

Ikerketa honen xede nagusia 12 eta 16 urte arteko nerabe gipuzkoarrek egiten duten Ikus-entzunezko edukien kontsumo zein sorkuntzaren diagnostiko sinesgarri bat eskaini eta euskarak esparru horretan duen lekua zehaztea da. Finean, nerabeen artean euskarazko ikus-entzunezko edukien kontsumoa eta sorkuntza sustatzeko beharrezkoak diren politikak garatzeko abiapuntua baita. Zentzu horretan, hainbat arrisku eta aukera ere antzeman ditu ikerketa honek.

AHULEZIAK ETA MEHATXUAK

1. Euskarazko ikus-entzunezko edukien eskaintza urria da.

Gabezia hori, gainera, areagotzen da gazteei zuzendutako ekoizpenak aintzat hartuz gero.

2. Euskarazko ikus-entzunezko edukien eskaintzaren ezezagutza.

Euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza, urria ez ezik, ezezaguna ere bada gazte askorentzat. Nerabeek ez dute-eta ekoizpen hauek erraz aurkitzeko erakusleiho ezagunik sarean.

3. Euskarazko ikus-entzunezko ekoizpen gehienak ez dira erakargarriak.

Inkestak eskainitako datuek nahiz eztabaida taldeen emaitzek ere argi erakusten dute nerabe gehienentzat euskarazko ikus-entzunezko edukiak ez direla erakargarri. Euskaraz bizi ez direnen artean, gainera, jarrera hori areagotzen da. Eta, zenbaitetan, interesik ezatik arbuiora egiten dute jauzi.

4. Sorkuntzarekiko, euskarazko ikus-entzunezko edukiak sortzeko bereziki, interes gutxi azaltzen dute nerabeek.

Ondorioetan adierazi legez, sortzaile baino, kontsumitzaile dira gazteak. Gutxi sortzen dute. Are gutxiago, euskaraz.

5. Euskarazko ikus-entzunezko edukien aurrean nerabeek genero zein eskualde mailan agerian utzitako ezberdintasun handiek zaildu egiten dute politika komun bat abian jartzea.

Euskarazko ikus-entzunezko ekoizpenekiko gazteek duten jarrera kontuan harturik, arrakala handia dago eskualde mailan. Horrez gain, alor honetan ere, mutil eta nesken lehenetasunak arras ezberdinak dira.

INDARGUNEAK ETA AUKERAK

1. Euskarazko ikus-entzunezko edukiak kontsumitzeko prest legokeen publiko potentzial ezkutu edo latente bat dago.

Go!azen telesailaren arrakastak euskarazko ikus-entzunezko edukien eskaririk badela argi erakusten du. Publiko potentzial hori erakartzeko formulekin asmatzean datza gakoa.

2. Nerabe guztiak aro digitalean jaiok dira eta euskararen ezagutza homogenea dute.

Natibo digitalak dira gazte guztiak eta smartphone sakelako telefonoa erraztasun eta maiztasun handiz darabilte.

3. Ikus-entzunezko sorkuntzarako ezinbestekoak diren *hardware* (smartphone sakelako telefonoa) eta *software*-a eskura ditu nerabe orok.

Software-a erdiestea, gainera, erraza eta doakoa da. Horrek, hain justu, ikus-entzunezko edukiak sortzeko abantaila handiak eskaintzen ditu.

4. Sare sozialetan eta sarean bertan maiztasun handiz dabilta nerabeak.

5. Ikus-entzunezko edukien esparruan mutil eta nesken artean ezberdintasun handiak dauden arren, interes komunik ere bada.

Pelikulen kasuan, komedian –*Ocho apellidos vascos*– eta abenturan –*Los juegos del hambre*– gustuak antzekoak dira. Beste horrenbeste gertatzen da ere telesail (*Hawaii 5.0.*, *Juego de tronos*, *La que se avecina*...) eta telebista saio (*El hormiguero*, *Herri txiki*, *infernus handi*, *Burubero*...) jakin batzuekin. Instagram eta WhatsApp sare sozialetan ere portzentajeak parekoak dira.

Labur esanda, natibo digital euskaldunez osatutako talde handia dago. Eskari handia, beraz. Ikus-entzunezko edukietara sarbidea dute eta sare sozialetan etengabe dabilta. Natibo euskaldun hauek, ostera, ez dituzte euren interesak euskaraz behar bezala aseak ikusten, eskaria urria eta ikusezina delako.

IV. Jarduera egitasmo baterako iradokizunak

1. SMARTPHONE SAKELAKO TELEFONOA, EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKO KONTSUMO ETA SORKUNTZAREN ARDATZ

Smartphone sakelako telefonoak euskarazko ikus-entzunezkoa sustatzeko politika ororen giltzarri behar du izan. Izan ere, landa-azterketan antzemandako arriskuak saihesteko erremintarik egokiena izateaz gain, sor daitezkeen aukerei etekin gehien atera diezaiokeen bitartekoa ere bada.

Nerabeen kontsumoa akuilatzea funtsezkoa da. Horretarako, euskarazko ikus-entzunezko edukiak erakargarri bihurtzea nahitaezkoa da. Sektoreak ahalegin berezia egin behar du elkarlanean aritu eta kalitatezko edukiak sortzeko. Eta, horretarako, erakundeen babes ezinbestekoa da. Halaber, kalitatezko ikus-entzunezko eduki horiek egokiro zabaldu eta ezagutarazteko estrategia berriak abian jartzea ere derrigorrezkoa da.

Era berean, gazte nerabeen euskarazko sorkuntza bultzatzea ere beharrezkoa da oso. Euren ezagutza teknologikoa praktikara eramatea baita erronka. Nerabeak natibo digitalak dira eta parte hartze handia dute sare sozialetan. Parte hartze horrek, gainera, lotura estua du aisialdiarekin eta euren interes pertsonalekin. Ez da helduek -gurasoek edo irakasleek- ezarritako zerbait. Gustuko duten zerbait da eta euren borondatez egiten dute. Hori guztia kontuan harturik, nerabeen artean euskarazko ikus-entzunezko edukien sorkuntza bultzatzera zuzendutako saio orok zera izan behar du kontuan:

- Gazteen sormena suspertzeko formulak aurkitzea ezinbestekoa da (ikastetxe eremutik at eta hezkuntza formatu oro saiheztiz).
- Aisialdiarekin lotura estua izan beharko lukete.
- Sare sozialetan gazteek duten ohiko parte hartzearekin sinergian sartu beharko lirateke.
- Genero ikuspegitik ere transbertsalak beharko lukete izan.

2. ESKUALDE MAILAN EMATEN DEN ARRAKALAREN ARRAZIOIAK AZTERTU ETA POLITIKA EGOKI BAT DISEINATZEA

Eskualde mailan arrakala bat dago Gipuzkoan. Izan ere, Donostialdeko eta Oarso - Behe Bidasoako nerabeek gainontzeko eskualdeetakoek baino jarrera eskasagoa dute euskarazko ikus-entzunezko edukien aurrean. Ez da konpontzeko auzi erraza, inondik ere. Testuinguruak zeresan handia baitu. Edozelan ere, ez dirudi eskualde guztietan euskarazko ikus-entzunezko edukiak sustatzeko politika berbera ezartzea -inolako ñabardurarik egin gabe- eraginkorra izan daitekeenik. Dena dela, politika berezitu bat baino areago, komenigarriagoa litzateke politika orokorraren osagarri izan daitezkeen neurri berezi batzuk abian jartzea aipatu bi eskualdeetan; lurraldeen arteko diferentzia nabarmenak arintze aldera, bederen. Ezinbestekotzat jotzen diren neurri horiek baliagarriak gerta daitezzen, mesedegarria litzateke ere ikerketa sakon bat egitea arrakalaren arrazioiak aztertu eta konponbide egokiak aurkitzeko.

3. EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIETAN OINARRITUTAKO PLATAFORMA BAT SORTZEKO PROPOSAMENA

Nerabeen artean euskarazko ikus-entzunezko kontsumoa eta sorkuntza sustatze aldera, ezinbestekoa da plataforma bat sortzea. Egun, Interneten aurki daitezkeen euskarazko ikus-entzunezko edukiak urriak dira eta sarean barna sakabanaturik daude. Horrek egiten ditu usu ezezagun eta eskuraezin. Askotariko ikus-entzunezkoak bere baitan bilduko lituzkeen plataforma interaktibo batek, ostera, nerabeen arreta bereganatuko luke. Nolanahi ere, hastapenetan, euskal nerabeen erreferentzia bihurtu ahal izateko, erakundeen babesa ez ezik, ikastetxeen konplizitatea ere beharrezkoa izango du.

Orobat, edukien kontsumo indibiduala, nahieran eta pertsonalizatua, bermatu beharko luke plataformak. Pertsonalizazioa oso garrantzitsua da, kontsumo eredu berrian nagusi izateaz gain, metadatuak erabiltzaileen gustuen gaineko informazio zehatza ematen baitu. Informazio hau ezinbestekoa da nerabeei zuzendutako edukiak ekoitzi eta partekatzeko sasoian. Era berean, komuneko edukiak kontsumitzen dituzten beste nerabeekin harremanetan jartzeko, ikerketak identifikatu dituen sare sozialak eta bestelako bitartekoak ere hartu beharko lituzke kontuan plataformak.

Edukiak:

- Ikerketak berak eskainitako diagnostikoa oinarri hartuta diseinatu litzateke plataforma. Bere xedea erdiesteko erakargarria beharko luke izan. Hortaz, gazteen gustuak kontuan hartu beharko lituzke bere eskaintza apailatzerakoan.
- Kirolaren alorrean, kasu, futbolak du harrerarik handiena. Realari (gizonezkoak / emakumezkoak) eta Eibarri buruzko pieza informatiboak sor daitezke. Baina ez hori bakarrik. Futbolari ere parte har dezakete (elkarrizketa birtualak eskainiz, aholkuak emanez...). Astean behin ere taldearen elastiko sinatuak, baloiak, partidak ikusteko sarrerak... zozkatu daitezke. Horretarako, futbol taldeekin harremanetan jartzea eta euren kolaborazioa lortzea ezinbestekoa da.
- Musikaren eta zinemaren esparruetan ere antzera joka daiteke. Euskal musika taldeen disko eta kanten berri emateaz gain, musikarien parte-hartzea susta daiteke eta diskoak, kamisetak eta kontzertuetarako sarrerak ere zozkatu daitezke. Era berean, ezinbestekoa litzateke diskoetxeen eta musika taldeen konplizitatea lortzea. Interesgarria litzateke ere beste eragileekin sinergiak bilatzea. Gaztea irratiarekin, esate baterako. Zinemaren eta bideojokoaren kasuetan ere antzeko estrategiak abian jar daitezke.
- Euskaraz mintzatzen diren youtuberrek ere bertan izan dezakete euren lekua. Halaber, nerabeek gogoko dituzten gaien buruzko bideo tutorialak ere eskaini daitezke euskara hutsean.
- Euskarazko ikus-entzunezko edukien kontsumoa sustatzeaz gain, sorkuntza ere bultzatu beharko luke plataformak. Horretarako, ekimen ezberdinak hartuko lirateke eremu guztietan. Zinemaren kasuan, adibidez, film laburren lehiaketak antola daitezke. Sortzaileen harrobi bat eraikitzeke lehen urratsak eman, alegia.

Ezaugarriak:

- Web manager bat eta lantalde txiki bat beharko luke plataformak. Arduradun hauek, sorkuntzan bainoago, kudeaketan egingo lukete lan. Plataformaren edukiek etengabe berritu eta erabiltzaileekin elkarrekintza bermatu beharko lukete. Nerabeen parte-hartzea eskatzen denetan, berriz, iragazki lana ere egin beharko litzateke. Plataformaren erabiltzaileak adin txikikoak izango baitira.
- *Smartphone* sakelako telefonoak berebiziko garrantzia izango luke. Hala, plataformaren edukiak nerabeek gehien darabilten gailura egokituko lirateke. Noizean behin, euskarazko aplikazioak

eskainiko litzaizkieke eta WhatsApp bitartez plataforman jazotako nobedade ororen berri izango lukete berehala.

- Egitasmoaren ardura eta aurrekontuaren atal nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku egongo litzatekeen arren, kolaborazio sare oparo bat osatzea ezinbestekoa da. Alde batetik, beste hainbat erakunde eta enpresak plataformaren finantziazioan parte har dezakete bere atal bat –musika, kasu- babestuz. Eta, bestetik, euskarazko ikus-entzunezko hedabide eta enpresekin hitzarmenak egin daitezke plataformaren pieza informatiboak sortzeko.

Helburuak:

- Nerabeei zuzendutako euskarazko ikus-entzunezko edukien eskaintza nagusia plataforma bakar batean biltzea eta eguneratzea. Hala, euskarazko ikus-entzunezko edukien erakusleho gisa jokatu luke plataformak. Eta, erreferentzia bihurturik, nerabeek argi izango lukete sarean nora jo gustuko dituzten ikus-entzunezko ekoizpenak aurkitzeko.
- Euskarazko ikus-entzunezko edukiei prestigioa eman eta euren kontsumoa sustatzea. Plataformak nerabeentzat erakargarri diren ekoizpenak eskaini eta erabiltzaile gehiago bildu ahala, euskarazko ikus-entzunezkoen kontsumoa susper dezake. Eta, bide batez, kontsumitzaile kopuru egonkor bat osatu.
- Nerabeen artean euskarazko ikus-entzunezko edukien sorkuntza hauspotzea. Gipuzkoako gazteak, sortzaile baino areago, kontsumitzaile dira. Hortaz, beharrezkoa da euren sormena sustatzea. Ildo horretan dute garrantzia plataformaren bidez antolatutako lehiaketek. Euskarazko ikus-entzunezko edukien sortzaile gazteen harrobi bat osatzea litzateke hurrengo pausoa.

4. NERABEEI ZUZENDUTAKO TRANSMEDIA TELESAIL BATEN EKOIZPENA

Nazioarteko ereduak aintzat harturik, gazteei zuzendutako transmedia telesail bat ekoitzi daiteke. *Go!azen* telesailaren arrakasta, kasu, abiapuntu ona izan daiteke gisa horretako egitasmo bat abian jartzeko. Hala, telesaileko pertsonaia arrakastatsuenak ardatz hartuta, *spin-off* berriak aurreikus daitezke, estrategia transmedia integral baten babesean; beti ere *smartphone* sakelako telefonoaren aukerak baliatuta. Sareak –WhatsApp eta Instagram, bereziki– eta plataformak –Youtube– erabili beharko lirarteke telesailari buruzko interesa piztu eta jarraitzaileekin *feed-back*-a erdiesteko.

Transmedia estrategia honetan, planifikazioa ezinbestekoa da. Funtsean, telesailaren narratiba finkatu beharko litzateke. Hau da, telesailak garatuko dituen istorioak zein pertsonaien bizipenak zehazteaz gainera, argi izan beharko lirarteke beste euskarrien bitartez eskainitako edukiak. Zein eduki gehigarrik osatuko luketen telesailaren istorio nagusia, alegia. Hala, garrantzi handia du kronograma batean zehatz eta zorrotz islatzea planifikazioa.

Hastapenetan, gazteen interesak hobe ezagutzeko, sareak erabiltzeaz gain, komenigarria litzateke ere telesailaren jarraitzaile talde bat biltzea eta haien gustuak, nahiak eta aurreikuspenak jasotzea. Ildo beretik, telesailaren jarraitzaile ez diren gazteak erakartzeko ahalegina egin beharko litzateke aurreko puntuan proposatutako ikerketan bildutako informazioa oinarri harturik. Nerabe hauen guztien iritziak transmedia strategiaren diseinurako baliagarriak gerta daitezke. Halaber, ikusle gaztea ere partehartzaile egin daiteke. Zentzu horretan, *El ministerio del tiempo* telesail espainiarrak abian jarritako estrategia zenbaitzuek eredu garri dira. Esate baterako, gazteei pertsonaia baten patua aldatzeko aukera ematea.



Egitasmo honen barnean, transmedia telesaila ardatz izango lukeen bideojoko bat diseinatzea ere oso aproposa litzateke. Esparru horretan dagoen gabezia handia aseko luke eta, gainera, nerabeen artean balio etikoak –generoen arteko berdintasuna, adibidez– sustatzeko tresna ezin hobea izan daiteke.

Sektorearen elkarlana zein inplikazioa eta erakundeen babesa nahitaezkoak dira asmo handiko proiektu hau arrakastaz gauzatzeko.



ETORKIZUNA ERAIKIZ
EL **FUTURO** DE GIPUZKOA

